

UGAO LHI IKASTETXE PUBLIKOAN  
EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO  
PLANA. (2010-2012).

HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA  
IKASTARORAKO SAKONTZE  
EGITASMOA.



[http://www.isei-ivei.net/blog/uploaded\\_images/euskara-763633.gif](http://www.isei-ivei.net/blog/uploaded_images/euskara-763633.gif) orrialdetik lortutako irudia.

EGILEA: ASIER EGUIRAUN ITURBE-ORMAECHE.

## **AURKIBIDEA**

## **AURKEZPENA.**

## **0. SARRERA**

**0.1 Plangintzaren kontzeptua.**

**0.2 Plangintzaren funtzioak eta justifikazioa.**

**0.3 proiektuaren azken xedeak eta ezaugarriak.**

## **1. TESTUINGURUA.**

**1.1 Herriaren eta ikastetxearen egoera.**

**1.2 Euskararen egoera herrian eta ikastetxean.**

**1.3 Eskolak euskararen erabilera bultzatzeko dituen eskumenak.**

## **2. 2010-2012 URTEETARAKO PLANGINTZAREN HELBURU OROKORRAK.**

## **3. ESPARRUAK ETA JUSTIFIKAZIOA.**

**3.1 Euskararen aholku batzordearen proposamena.**

**3.2 Egitasmo honen proposamena.**

## **4. HELBURUAK ESPARRUKA ETA HAUEK NEURTZEKO ADIERAZLEAK.**

**4.1 Irakurriko denaren ulermena errazteko argibideak.**

**4.2 Esparruak, aspektuak, helburuak, adierazleak eta ekintzak**

**4.3 Sintesi eskema.**

## **5. EBALUAZIOA.**

**5.1 Datuak hartzeko taula.**

**5.2 Datu kualitatiboak eta ekarpen posibleak biltzeko taula.**

## **6. URTEKO PLANA EGITEKO PROPOSAMENA.**

## **7. ONDORIOAK.**

## **8. BIBLIOGRAFIA, WEBGRAFIA ETA GLOSARIOA.**

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

### **AURKEZPENA.**

Ni Asier Eguiraun Iturbe-Ormaeche HIZNET graduondoko ikastaro honetako partaide nahiz 2009-2010 ikasturtean eta horregatik sakontze egitasmo hau garatu dut.

HIZNET hizkuntza plangintza graduondokoa da, Euskal Herriko unibertsitateko berezko titulua. Bertan soziolinguistikaren ezagutza garatzen da euskararen normalkuntzan behar beharrezkoa den ezagutza kualifikatuagoa eta sistematizatuagoa izateko.

Bestalde, internet gauzak egiteko era aldatzen ari da eta honen ondorioz irakasleria onenarekin edozein momentutan kontaktuan jartzeko aukera dago.

Hizkuntza plangintza ikastaro honek aurrez-aurreko irakaskuntzaren eta irakaskuntza birtualaren abantailak uztartuta, diseinu malguari eusten dio. Hizkuntza plangintza graduondoko honek, bildutako eta eraikitako ezagupenak erabilita sakontze egitasmo bat garatzea proposatzen du graduondoko azken lan moduan.

Sakontze egitasmo honetan Ugao-Miraballes herriko ikastetxe publikoan euskararen normalizazioan eragiteko plangintza bat aurkituko dugu. Ikastetxe honetan egiten dut lan eta urteetan euskararen egoera eztabaidagai izan Hezkuntza Komunitatean.

Hona hemen beraz, nik, graduondoko honetan garatutako gaiak erabiliz zein instituzioek argitaratutako material desberdinak oinarritzat hartuz, gaur eguneko legeak ematen diguten oinarria erabiliz eta neure sormen propioarekin, irakaskuntzari eta bereziki, UGAOKO LHiri zuzendutako EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO PLANGINTZA 2010-2112, Lagungarria izango delakoan.

## 0. SARRERA.

Euskararen erabilera indartzeko plana Ugao LHI ikastetxean euskararen erabilera indartzeko egiten dudan planifikazioa da. Gure ikastetxean euskararen erabilera handitzeko agiri pedagogiko honen beharra ezin bestekoa dela uste dut eta behar hori azpimarratu nahiko nuke. Gero eta erakunde gehiago dira plangintza desberdinetan oinarriturik lan egiten dutenak, hauek, erakundeen arazoen, beharren eta interesen ispilu baitira. Gure eskolako beharrak ez dira inprobisazio hutsez sendotuko, plangintza honen garapenean, koherentzian eta ebaluazioan oinarritutako, lanaren efikazia eta efizientzian baizik.

Azken finean hau izango da plangintza honen erronka: Gure hezkuntza komunitatea proiektu zehatz baten inguruan biltzea, inplikazioa bultzatuz, taldeen lana eta motibazioa indartuz eta, nola ez, euskararen erabilera indartuz.

### 0.1 Kontzeptua.

Plangintzaren kontzeptua 50. hamarkadan garatu zen armen industriek beraien proiektuak garatzeko diziplina eta talde desberdinen lana koordinatu behar zutelako era berean helburu beraren lorpenerako. Bernard Schriever,<sup>1</sup> misil balistikoaren garapenerako arkitektoa, plangintzen koordinazioaren aita bezala ezagutzen da, 'konkurrentzia' garatu zuelako. Honela, garapen planeko elementu guztiak plangintza bakarrean integratzea paraleloki exekutatu eta ez sekuentzialki, lortu zuen. XXI. Mendearen hasieran kalitatearen lorpenarekin oso estuki erlazionatuta dago. Horrela plangintzaren ideia orokorrak, gaur egun, erakundearen baloreak adierazten ditu eta planifikazioarekin, berrikuntzarekin eta hobekuntzarekin erlazionaturik dago. Nik plangintza eta proiektua lexiko aldetik bereizten ditut bakarrik beraz, bata zein beste a erabiliko ditut lan honetan. Hezkuntza esparruan kontzeptua zehaztu nahi dugunean honako definizioak azaltzen zaizkigu:

- “Proiektua jarduera zehatzen, koordinatuen eta planifikatuen azalpena da zerbitzu eta helburu zehatz batzuk lortzeko “(Ander, Egg, 1995:12).
- “Aurrekontu baten limiteen barruan eta denbora tarte konkretu batean helburu zehatzak lortzeko asmoz koordinaturiko ekintzen multzoa da proiektua. “ ONU (Cohen eta Francok esana 1988:76)

Aurreko definizioak kontuan izanda esan dezakegu euskararen erabilera indartzeko plangintza hau hiru urtetan egingo dugun hobekuntza proposamen arrazoitu eta planifikatua dela. Hobekuntza hauek ikastetxeko zenbait eremutan egingo ditugun esku hartze zuzenetan islatu eta gauzatuko dira. Proiektu hau ez da dagoeneko martxan dauden programak kudeatzeko tresna bat soilik. Honetaz gain, aldaketak eta hobekuntzak planifikatzeko, aurrera eramateko eta ebaluatzeko tresna baizik.

---

<sup>1</sup>[http://www.navegapolis.net/files/s/NST-001\\_01.pdf](http://www.navegapolis.net/files/s/NST-001_01.pdf) web orrialdean dagoen artikulutik hartutako informazioa, Juan Palacio 2006:2

## 0.2 Proiektuaren Funtzioak eta justifikazioa.

Esana dugu euskararen erabilera indartzeko plana ezin bestekoa dela ikastetxe baten. Euskal Herrian gertatzen ari den mintzaldatzeari freno jarri ez ezik euskararen indarberitzea gertatzeko ere beharrezkoa delako.

Euskararen aholku batzordeak bere “Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea “ proposamenean hurrengoa dio,

*“...Euskal Herrian gertatutako dislokazio demografikoari (Fishman) zein ahultze soziokulturalari buelta emate horretan gogotik ahalegindu gara ikastola, eskola zein euskaltegitan. Lortutako emaitzek ez gaituzte erabat gogobete, ordea, eta, besteak beste, euskal lurralde batzuetan euskararen ezagutzak gora egin arren, adin talderik gazteenetan, euskararen erabilerak maila bereko hazkunderik ez izatea kezka iturri da gure artean.” (EAB<sup>2</sup> Ikastetxetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN<sup>3</sup> udal-ereduekin uztartzea: 15)*

Denok argi daukagunez Ikastetxeetan ematen dira eta hezkuntza sistemak posible egiten dituen ezagupenen eraikuntza prozesuak, beraz Hezkuntza sistema da gure oinarritzko baliabidea euskaldun berriak sortzeko, bihar etziko euskaldunak. Beraz, derrigorra da ikastetxeetan erabilera indartzea eta ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen beharrezko diren plangintzak martxan jartzea.

Lorpenak norabide konkretu batean eta helburu konkretu batzuekin bideratu beharra dago. Honez gain lorpenak edo gabeziak ebaluatu egin behar dira eta horretarako tresna baliagarriena euskararen erabilera indartzeko plangintza da.

Gure ikastetxea aspektu honetan, orain arte ere lanean aritu da. Urtero urtero sartzen ditu euskararen erabilera bultzatzeko ekintza desberdinak ikasturteko planean. Ekintza hauek NOLEGA<sup>4</sup> programaren menpe daudenak izaten dira. Hizkuntza plangintza ikastaroko 5.3.2 moduluan agertzen da zer den NOLEGA eta bere barne kokatzen duen IKE<sup>5</sup> zehatz mehats. Baina gure ikastetxean egiten diren ekimenak nola nahi ere testuinguru konkretu batean kokatu nahi ditudanez eta, irakurlearentzat irakurketa errazago izateko asmoarekin euskara erabilera normaltzeko ekimen honen laburpen txiki bat egingo dut, baina ikastetxean bertan zentratuz. NOLEGAREN egitekoak bi arlo nagusitan gauzatu dira: eskola giroa euskalduntzea eta hezkuntza administrazioa euskalduntzea. Eskola giroa aipatzen dugunean ez ditugu aipatu nahi euskaraz ematen diren edukiak eta irakasle eta ikasleen arteko harreman pedagogikoak bakarrik, baizik eta, ikasleak euskara bereganatu, landu, sakondu eta erabiltzeko eragin handia duen une, ekintza eta esparru oro. Beraz aspektu honetan gure ikastetxean, euskal giroa barnetegietara joaten gara urtero, bertsogintza proiektuan sartuak gaude, kantagintza proiektuan sartuak gaude, antzerkigintza proiektuan baita ere eta ikasgelaz kanpoko ekintzak antolatzen ditugu erabilera hori bultzatzeko eguneroko bizi akademikoaz aparte. Honez gain eusko jaurlaritzarekin euskal idazleen elkarteak eta TINKO<sup>6</sup> euskara elkarteak hitzartutakoaz baliatuz, garatzen dituzten bi ekimenetan ere parte hartzen dugu: ‘idazleak ikastetxeetan ‘ eta ‘euskara zine aretoetara ’ programak.

<sup>2</sup> EAB- Euskaren Aholku Batzordea.

<sup>3</sup> EBPN- Euskararen Biziberritze Plan Nagusia.

<sup>4</sup> NOLEGA- Normalkuntza Legearen Garapena.

<sup>5</sup> IKE- Ikasgelaz Kanpoko Ekintzak.

<sup>6</sup> TINKO- Filmak euskaratzen eta ikasleen esku jartzen lan egiten duen euskara elkarte.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

Pentsa daiteke ekintza nahikoa direla euskararen erabilera bultzatzeko, baina azken finean ekintza solteak dira eta askotan beraien arteko kohesioa ez da nahikoa izaten. Horregatik niretzako beharrezkoa da ekintza hauei kohesioa eta koherentzia emango dien plangintza bat garatzea eta bertan kontutan izan beharreko esparru guztietan sakontzea eta beharrezko diren aldaketak planteatzea helburu desberdinen bitartez. Helburu hauek lortzen doazen jakiteko beharrezko diren lorpen irizpideak ezartzea eta helburu hauek lortzeko eta lorpen irizpide hauetan hobekuntza sortzeko beharrezkoak diren ekintzak sentsuz praktikan jartzea. Ebaluazioa izango da lorpenak egiaztatzeko tresna. Jakina da ebaluazioa prozesu osoan gertatzen dela eta guk zenbait momentutako egoera jakin nahi dugunean balorazio bat egin beharko dugula. Normalean balorazio hauek ikasturteko planen ondoren izan beharko dira eta horren arabera hurrengo urteko urteko plangintzak egingo dira.

Behin plangintzaren beharra arrazoitu eta gero, plangintzak beteko dituen funtzioak zerrendatzea falta dugu:

- Plangintza honen bitartez ikastetxeko sektore eta taldeen arteko partizipazioa bultzatu nahi da eta beraien inplikazioa sustatu euskararen normalizazioarekin.
- Normalizazio lana planifikatu egiten du eta hiru urtetan egingo den lana sistematizatu eta kohesionatu nahi dugu. Horretarako ezinbestekoa da EEP egotea. Bestela, norabide gabeko lana egiten egongo ginateke nondik hasi eta nora heldu jakin gabe. Momentuan momentuko erantzunak eman beharko genituzke, egin behar guztiak inprobisatuz.
- Bakoitzak ikastetxe barruan egiten duen lanari zentzua ematen lagunduko du eta lan indibidualak eta kolektiboak konpartitutako proiektu baten barruan kokatuko ditu.
- Planaren bitartez ikastetxean egingo den lana eraginkorragoa izango da. Guztiontzat ezagunak diren eta adostuak dauden helburu batzuk izango ditugunez ikastetxeko partaide guztiak zurrango egongo dira egiten dutenaz. Honek lan autonomia erraztuko du eta instituzioko pertsonen motibazioa handituko du.
- Planak egingo den lana ebaluatzeko beharrezkoak izango diren baliabideak zehaztuko ditu eta daramagun lan ildoari buruzko informazioa emango digu prozesuan zehar. Behar bada hiru urte hauetan aldaketak egitera bultzatuz eta ondorengo bost urteko proiektu batentzako oinarri izanez. Abiapuntutzat hartuko genituzke emaitza horiek.

Argi gelditzen da ikastetxe guztiek izan beharko luketela bost urteko plangintza bat, onurak argiak direlako eta lan ildo konkretu eta helburu ezagun batzuen lorpenean guztion elkarlana ezinbestekoa delako. Honek adierazten digu euskararen erabilera handitzea ezin daitekeela inertziaren esku utzi. Aldats behera freno gabe doan auto baten antzera; lehenengo kurba heltzen denean bidetik irtengo delako.

### **0.3 Proiektuaren azken xedeak eta ezaugarriak.**

Halaber; EAEn, 1982ko azaroaren 24an, Euskararen erabilpena arautzeko oinarrizko legearen arabera (10/1982), derrigorrezko irakaskuntza amaitzen denean, ikasle guztiek, jatorriz euskaldun zein erdaldun, elebidun orekatuak izan behar dute. Lorpen hau

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

euskarari eskaintzen zaion irakaskuntza denborarekin zuzenki proportzionala da. Beraz, zenbat eta hizkuntz gutxituaren erabilera handiagoa izan, elebitasuna orekatuagoa izango dela pentsa daiteke.

Honetaz gain, 323/2003 dekretuak, abenduaren 23koak, hizkuntza normalkuntzarako Ulibarri programa arautzen dutenak honela dio: Eskola-munduko euskal giroa bermatzea eta ikastetxeen barne nahiz kanpo jardueran euskara adierazpide normal bihurtzea.

Horregatik hauetan oinarrituta ebatzi dezakegu euskararen erabilera areagotzea oso garrantzitsua dela. Gure azken xedeak hurrengoak izango dira eta hurrengo urteetako plangintzak oinarritzat hartuko dituzte:

- **Euskara izan dadila irakaskuntza sistemaren berezko hizkuntza, ikastetxe hizkuntza, komunikazio hizkuntza, eremu formal zein informaletan.** Honek dituen ondorio guztiekin. Ikastetxearen harremanetarako hizkuntza euskara izango da eta behintzat euskaraz izan beharko dira komunikazio guztiak. Beharrezko balitz bakarrik itzuliko dira dokumentuak eta komunikazioak gaztelaniara. Ikastetxean ematen diren harreman guztietan euskarak lehentasuna izatea.
- **Euskararen ezagutzaren eta erabileraren etengabeko hobekuntza.** Honekin erabileraren hobekuntza etengabea bilatu beharko dugu gure eguneroko lanean atxikitako plangintzen bitartez. Urtez-urte erabilera handituz joatea bilatuko dugu eta plangintza berrien beharra ezinbestekoa izango da.
- **Ikastetxeak, bere eguneroko bizitzan, inolako trabarik gabe euskaraz bizi ahal izateko beharrezko pausoak ematea.** Orain arte euskara erabiltzeko arazoak zeuden esparruetan beharrezko pausoak ematea hori horrela izan ez dadin hemendik aurrera. Eskolako organo gorenean partaide elebidunak egotea eta horrela ez balitz euskararen erabilera bermatzea...

Azken Xede hauen lorpenean aurrera egiteko denboran zehar garatutako plangintza desberdinetan ezin bestekoa da plangintza hauek hurrengo ezaugarriak kontutan izatea. Testuinguru konkretu batean arazo bati irtenbidea eman behar dio proiektuak, proiektuan parte hartzen dute agente guztiek ezagutu eta lortu dezaketela pentsatu behar dute eta eragile guztiek argitasun handiz jakin behar dute zer egin. Beraz eta laburbilduz hurrengo ezagugarriez doitu nahi dut nire sakontze egitasmo hau:

- Oinarritua: Proiektu hau ikastetxearen diagnostikotik abiatuko da eta analisi honen emaitzak proiektuaren oinarriak eta zutabeak izango dira.
- Errealak: Proposatuko diren zereginak eta lanak lortzeko modukoak dira. Proiektua sinesgarria izan dadila nahi dugu.
- Zehatza: Proiektu laburra zehatza eta argia izango da.
- Globala: nahiz eta zehatza izan sektore guztiak inplikatu nahi ditugu.

## 1. TESTUINGURUA.

### 1.1. Herriaren eta Ikastetxearen egoera.

Ugaoko ikastetxe publikoa Ugao-Miraballeseko Leitoki izeneko auzoan kokatua dago. Bizkaiko udalerrri hau Arratia-Nerbioi eskualdean dago; 4,54 km<sup>2</sup> ditu eta 81 metrora dago itsas mailaren gainetik. Bere geografiak gorabehera handiak ditu, mendiz inguratutako haran baten hondoan baitago. Mendi horien artean, eskuinaldean Artanda (547 m) azpimarratu behar da; ezkerrean, berriz, Pagasarriko hegoaldean dauden zenbait tontor: Kurutziaga, Larretxu eta Mugarriluze, besteak beste.

Nerbioi ibaia meandroak egiten hasten da ingurune honetan, eta, gainera, haran estu bat itxuratzen du; bertara Zeberio ibaia iristen da, eskuineko ertzetik, baita Itumbe, Añibari eta Kordeta errekek ere, ibaiaren emaria handituz. Udalerrria, funtsean, hiribildu zahararen erdigunean -bere kale bakarrarekin- eta beraren inguruan -mende honetan- eraikitako eremu urbanizatuek osatzen dute.

Horiez gain, biztanle gutxiko baserri-multzo batzuk ere badaude, hala nola, Udiarra, Markio, Elosu, Astibi, Leitoki, eta abar... Aipatutako baserri-multzo horiek dira, hain zuzen ere, Ugao-Miraballes hiribilduak bere ondoko elizateekin -Arrigorriaga iparraldean, Arrankudiaga mendebaldean eta hegoaldean, eta Zeberio ekialde eta hegoaldean- historian zehar izandako jurisdikzio-arazoan adierazle.

Gaur egun, biztanleen kopurua 4.170 da eta **Ugao LHI** herrian dagoen ikastetxe bakarra da eta herriko ume gehienek bertan egiten dute matrikula. Eskola, Leitoki izena duen eraikuntza baten kokaturik dago, bertan 312 ikasle daude.

Ikasle hauek bi etapatan banaturik daude Haur hezkuntzako etapan ikasmaita bakoitzean bi gela daudelarik eta lehen hezkuntzako etapan ikasmaita gehienetan bi gela daudelarik bi ikasmaitatan izan ezik. Guztira 18 gela dira eta honek eragiten dituen beharrezkoak pertsonal aldetik horrela banatuta daude:

- Haur hezkuntzan 8 tutore, hezkuntza indartzeko jardunaldi osoko pertsona bat eta jardunaldi erdiko beste bat. Irakasle ez den hezkuntza indartzerako teknikaria eta 2 urteko gelatan lan egiten duen gurasoak eta udaletxeak kontrataturiko laguntzailea.
- Lehen hezkuntzan 13 tutore Horietako 3 zuzendaritza lanerako beraien lan kargaren zati handi bat erabiltzen dutenak; Bestalde ingeleserako 2 irakasle espezifiko, heziketa fisikorako beste 2 irakasle espezifiko, Heziketa bereziko beste 3 irakasle 2 jardunaldi osoan eta bat Urretako ikastetxearekin konpartitua; Aholkulari bat; musikako irakasle bat; Logopeda bat konpartitua eta hezkuntza indartzeko teknikari bat.
- Azkenik, HIPI lanak egiteko bi jardunaldi erdi daudela esan behar da haur hezkuntzako jardunaldi erdiko pertsonaren lan karga osatzeko eta heziketa fisikoko beste irakasle baten jardunaldia osatzeko.
- Irakaslea ez den langileria. Hemen garbiketako lau langile, 3 sukaldari eta jantokiko zaintzaileak sartzen ditugu.

Pertsonal aldetiko beharrak alde batera utzita, ikastetxeak bere gain hartu dituen proiektuetara pasako gara: IKT dinamizatzailea proiektua: ikasketa buruak; Elkarbizitza



## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

proiektua heziketa bereziko irakasle batek; Agenda 21 proiektua ikastetxeko tutore batek; Euskara plangintza proiektua ikastetxeko beste tutore batek eta ikasle ez euskaldunentzako euskalduntze proiektua ikastetxeko bi irakaslek bakoitzak jardunaldi erdian.

Ikasle gehienak ez dira euskaldunak jatorriz, baina bai Ugaon jaiok direla gehienak. Aurretik esan dugun bezala Ugaon dagoen eskola bakarra da eta horregatik ikastetxean matrikula egiten duten ikasleen familiak oso heterogeneoak dira. Ezingo nuke esan familien ekonomia maila orokorrean baxua edo altua den. Argi dagoena da eta datu objektiboak eskuan hartuta egiten diren beken eskaera nahiko esanguratsua dela.

Azken urteetan beste instituzioekiko harremanak onak izan dira eta lankidetzaz sendotu egin da. Orain arteko zuzendaritzak beste instituzioekiko harremanetan lan handia egin du eta oso emaitza onak lortu ditu. Eta hori oso ondo ikus dezakegu orain dela 3 ikasturte egindako obren kudeaketan. Beste instituzioekiko harreman onak direla medio gure eskolarako zenbait hobekuntza lortu ziren (Beti iritzi kritikoak egon daitezkeen arren). Beste harremanak normaltasunez eramaten dira, harremanak berritzeguneekin, ikasketa buruen mintegiak, zuzendarien bilerak, Agenda 21eko koordinatzaileen bilerak, espezialisten bilerak...

**Beraz, hurrengo puntuan zehaztuko dugun moduan, jadanik agerian gelditzen ari dira plangintza honek jorratu beharko dituen esparruak.**

### **1.2 Euskararen egoera herrian eta ikastetxean.**

EUSTAT<sup>7</sup> eta Ugao-Miraballeseko<sup>8</sup> udalaren informazioari buruz hausnarketa pertsonal bat eginez zenbait ondorio atera daitezke. 2006. urtean bildutako datuak erabiliz euskaldun kopurua eta erdaldun kopurua antzekoa dela esan dezakegu eta gainera Eustat orrialdean 'ia euskaldunak' deitzen dituenak euskaldunei gehitzen badizkiogu, euskaldunak gehiago izango liratekeela. Baina hainbat adituk esan bezala erabileraren garapenak ez du bat egiten gaitasunaren garapenarekin. Nire pertzepzioaren arabera Ugaon ere berdin gertatzen da Ugaotarren gehiengoak euskaraz aritzeko gaitasun nahikoa izan arren hizkuntzarik erabiliena gaztelania dela ematen du eta azkenean euskaldunen arteko harremanak ere gaztelaniaz izatera heltzen direla dirudi.

2006. urtean Eustaten web orrialdean bildutako datuen<sup>9</sup> arabera Ugaoko herrian 1464 (%36,5) euskaldun bizi ziren, 872 (%22,5) ia euskaldun eta 1556 (%39,5) erdaldun. Guzti horietatik ama hizkuntza euskara zutenak 673 (%17,3) biztanle ziren eta ama hizkuntza euskara eta gaztelania zutenak 339 (%8,7) eta besteek ama hizkuntza gaztelania zeukaten (%74). Bukatzeko esan etxeko hizkuntza euskara dutenak 420 (%10,8) zirela eta etxean euskara eta gaztelania egiten dutenak 310 (%8) zirela. Datu hauetatik atera daitezkeen ondorio bi hurrengoak dira: badaudela euskaldunak ama hizkuntza euskara ez dutenak eta euskara ikasi egin dutenak eta badaudela euskaldun zaharrak etxean euskaraz hitz egiten ez dutenak. Lehenengo datuak adierazten digu euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak ditugula Ugaon. Hau ez litzateke arazo bat izan behar baina, herriko zenbait euskaldun zaharrekin honetaz hitz egiterakoan hurrengo azaltzen dute: 'batzuetan euskaldun zaharrak arazoak ditugu gure betiko euskara jatorra egiteko euskara batua nagusi den esparruetan eta hori ikusita

<sup>7</sup> [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

<sup>8</sup> [www.ugao-miraballes.net](http://www.ugao-miraballes.net)

<sup>9</sup> Eustaten datuetan 2 urtetik gorako biztanleak agertzen dira beraz, biztanleriaren %1 falta da.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

gaztelaniara aldatzen dugu gure diskurtsoa '. Bestalde euskara ama hizkuntza euskara izan arren etxean eta eguneroko bizitzan egiten ez dutenak ere badaude beraz beraien diskurtsoa ere gaztelaniaz izaten da. Beraz, Herriar euskaldunak edo ia euskaldunak gehiago izan arren, arrazoi bategatik edo besteagatik gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania dela da nire pertzepzioa.

Herriaren egoerak asko eragiten du ikastetxearen egoeran eta kasuistika desberdin hauek egunero ikusten ditugu ikastetxe, herri, langile ez irakasle, ikasle, irakasle eta gurasoen arteko harremanetan. Ondorioz, herriak eragin zuzena dauka ikastetxearen eguneroko bizitzan eta horren bestez ikastetxearen hizkuntza erabileran. Honela izanik, jorratu beharreko esparruak gero eta gehiago zehazten ari gara. Ikastetxea entitate propio duen instituzioa da eta bertan eragin daiteke plangintza konkretu bat aurrera eramanez baina ez badugu hezkuntza komunitateko beste agenteekin koordinaturik lan egiten eta ez badugu beste agenteekin elkar eragiten, hanka bat falta zaion aulkia izango dugu beti eta plangintzaren helburuak lortzea oso zaila izango da.

Jadanik testuinguruari buruz hitz egin dugunean esan dugun bezala, gure ikastetxea d Eredukoa da eta ikasle guztiak euskarako eredu honetan matrikula egin daukate. Hemen kasuistika ere herriaren antzerakoa da gaitasun maila ikasle gehienak lortzen dute baina beraien arteko harremanak gaztelaniaz izaten dira gehien bat. Gela barruan eta harremanak gai akademikoei buruz direnean orduan bai erabiltzen dute euskara ikasleek. Beraz euskara, gure eskolan, hizkuntz akademiko soila bihurtzen ari dela esan dezaket. Urteak daramatzat irakaskuntzan lanean eta egoera hau gero eta nabariagoa dela esan dezaket.

Eskolak honi galga jartzeko ekintzak martxan jarri ditu, baina hala eta guztiz joerak ez du kontrako norabidea hartzen. Arrazoi desberdinak direla medio ez ditugu nahiko genituzkeen emaitzak lortzen. Motibazio jarduerak zein erabilera areagotzeko ekintzak egiten dira baina kohesio gabeko ekintzak direla ematen du eta momentuan emaitza hona izan dela pentsatu arren gero ez dira emaitza horien ondoriok eguneroko bizitzan islatzen. Beraz ikastetxeko estamentu desberdinetan eta estamentu desberdinen arteko harremanetan eragin beharra dago euskararen erabilera handitzeko eta horretarako harreman horiek esparru desberdinetan antolatu beharko ditugu. Aldi berean esparru hauek aspektu desberdinetan eta aspektu desberdin hauei helburu desberdinak ezarriko dizkiogu horrela eragina eta esku-hartzea globala izan dadin eta ikastetxeak herri guztiarentzat dinamizatzailerik egin dezan.

### **1.3 Eskolak euskararen erabilera bultzatzeko dituen eskumenak.**

Euskal autonomia elkarterako ikastetxeek euskal eskola publikoko otsailaren 19ko 1/1993 legeak egozten dizkion eskumenak ditu:

- Euskal eskola publikoaren zioen artean, *'Euskal Herriko Autonomi Elkarteak, Autonomi Estatutuak 16. atalean dioenez, irakaskuntzari buruzko bakarrengo aginpidea du, beti ere Konstituzioko 27. atalak eta hura garatzen duten lege organikoek ezarritakoari, Konstituzioko 149.1.30 atalak Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei eta hura betetzeko eta garatzeko behar den goi-ikuskatzailetzaren kaltetan gabe. Autonomi elkarte honek, bestalde, baditu hezkuntza-sistemak kontutan hartu beharreko kultura -ezaugarri berariazkoak: bi hizkuntza ofizial, zeinen garapenerako lagundu behar duen sistema horrek, eta hizkuntza-alorrean gainditzeko dauden zenbait gatazka, konponbidea eskatzen dutenak.'*

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- *‘III. idazpuruak eskola publikoan euskarak duen tratamendua arautzen du. Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen, Euskararen Erabilpena Arautzearen, hastapenei begirunea izanik, haietan sakontzen da, hezkuntza-administrazioak gizarte-alorreko administrazio eta giza taldeekin lankidetzan eta elkarlanean aritzeko hastapena ezartzen da eta irakasleria euskalduntzeko plan urte anitza oharrekin da.’*
- *Legeak, laugarren idazpuruan, ‘Ikastetxeen autonomiaren hastapena jadanik urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistema Antolatzeak, jasotzen du pedagogiazko autonomia gisa bere 2.3.f) puntuan eta hastapen hori garatzen duten 57. eta 58. ataletan. Azken bi atal horietan antolakuntza-eremuetara eta ekonomi kudeaketara hedatzen da autonomia eta haren sustapena hezkuntza-administrazioen gain jartzen da.’*
- *lege honetako V. idazpuruak ‘ikastetxeen autonomia arautzen du, saiatzen delarik ikastetxeetarako ahalik eta autonomia handienaren eta administrazioak haien gainean egin beharreko koordinaketa eta kontrolaren arteko oreka mantentzen, administrazioak bermatu beharra baititu eskola publikoen helburu nagusiak sistema osoak lortzeko behar diren gutxieneko neurriak.’*

*‘Bai ikastetxearen hezkuntzako, ikasketetarako eta kudeaketako proiektuak, bai antolakuntza eta jarduera-araudia onartu eta burutzean gauzatzen da euskal eskola publikoko ikastetxeen autonomia.’*

*‘Antolaketa-eskemari dagokionez, legeak gutxienekoen sistema bat hautatu du, ikastetxeei ezinbestekotzat jotzen diren organoak zein diren esan eta haien egoerarekin hobekien egokitzen diren beste batzuk sortzeko askatasun osoa ematen dielarik.’*

*‘Pedagogiazko autonomiari eman nahi zaion indarra hezkuntza-aukera eta eskola-curriculumaren zehaztapena jasotzen dituzten agiriak ikastetxeek egin eta onartzean gauzatzen da. Beraz, agiri horiek, lege-arauen begirune barruan, eskola-elkarteen kideen erabakimen askearen adierazgarri izango dira, bakoitza dagokion batzar-organoan erabakiko delarik.’*

- *Lege honen berritasunik handienetako bat ‘kudeaketa-autonomia arautzeko eran datza. Sortzen den eskeman, administrazioak berarentzat gordetzen dituen ziurtapen eta kontrolen kaltetan gabe, ikastetxeek beren diru-kudeaketa antolatzeko malgutasun handiagoa izango dute, beren aurrekontua egingo baitute eta aurrekontu-urtean zehar funtzionamendu-gastuen banaketa askatasunez alda baitezakete.’*

Ondorioz gure eskumenen artean dago autonomia pedagogikoa, arauak jartzeko autonomia eta autonomia ekonomikoa. Horretaz gain euskara gaitasuna eta erabilera gaztelaniaren parekoa behintzat izatea lortzera derrigortuta gaude eta eskolak hori lortzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak jarri behar ditu. Eskolaren baliabideekin nahikoa ez bada instituzioek ere beraien esku dauden baliabideak erabili beharko dituzte eskolaren zerbitzurako eta bertako eskola komunitatea osatzen duten agente guztientzako.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

Beraz, gure eskola komunitatearentzat euskararen erabilera bultzatzeko plana egiteko aukera eta eskumena izateaz aparte, Euskal eskola publikoaren menpe dauden ikastetxe guztiak derrigortuta daude euskararen erabilera planak egitera. Argi dagoelako toki gehienetan eta baita ere gure ikastetxean euskarak bizi duen egoera gaztelaniaren menpekota dela. Atarikoan esan bezala, elebitasun orekatua lortzea ezinezkoa da euskararen erabilera bultzatu gabe.

Laburbilduz, ikastetxeek beraien esku dute euskararen erabilera bultzatzeko planak egitea, plan hauetako irakaskuntza ikaskuntza jarduerak antolatzea, beraien arautegian euskararen erabilpena bultzatzeko protokoloak eta arauak jartzea eta beharrezkoa den diru laguntza ezartzea jarduera hauek aurrera eramatea posible izan dadin. Ikastetxeak beraren baliabideekin nahikorik ez badu instituzioek lagundu beharko dute beharrezko baliabideak jarritz, Giza baliabideak, baliabide materialak zein ekonomikoak.

## **2. 2010-2012 URTEETARAKO PLANGINTZAREN HELBURU OROKORRAK.**

Aurretik azaldu ditugu zeintzuk izango diren gure ikastetxean euskararen erabilera indartzeko egingo ditugun plan desberdinen azken xedeak. Esanda dagoenez azken xede hauek gure lan ildoak zehaztuko dituzte eta beraien lorpena begira egingo ditugu gure plangintza desberdinak. Helmuga bezala jarri ditugun hauetara heltzeko beharrezko izango ditugun urteak kalkula ezin dira niretzat. Hori bai, urte anitzeko plangintza bat baino gehiago beharko ditudala aurreikusten dut. Bai gure eskola komunitatean zein beste edozein eskola komunitatetan.

Ondorioz gure ikastetxean egingo den esku hartzerako azken xedea badakigunez orain urte anitzeko plangintza honetarako helmugara heltzen lagunduko diguten beste zenbait helburu markatu beharra daukagu. Helburu hauen lorpenak bide egokitik goazela adieraziko digu eta hurrengo plangintzarako azken xedetik hurbilago dauden helburuak zehaztea baimenduko digu.

Plangintza honetarako helburu nagusiak hurrengoak izango dira:

- Euskarak oraindik lehentasunik ez daukan agiri, dokumentu eta protokolo idatzietan, lehentasun hori lortzea.
- Euskarak berezko hizkuntzaren izaera duela onartuta gelditzea eta beharrezkoa den agirietan txertatzea, euskararen egoera berri honek beharrezkoak diren ondorioak izan ditzan.
- Ikastetxeko bizitzaren eremu desberdinetan euskararen erabilera neurtu eta erabilera maila hori hobetu.
- Motibazio kanpainetan esparru guztien parte hartzea bermatu.
- Gaztelania erabiltzera eramaten diguten arrazoiak zehaztu eta urteko planetan arrazoi horiek desagertu arazteko baliabideak jarri edo eskatu.

Helburu hauek lortzeko urteko plan desberdinak egingo dira. Plan bakoitzak helburu propioak izango ditu eta aurrerago azalduko dugun moduan ez du esparru guztietan eragin beharko. Eskola komunitateak erabakiko du zein esparrutan eragin eta horren arabera esparru bakoitzarekiko helburuak markatu beharko ditu eta nola ez helburu hauek neurgarri egiten dituzten adierazleak.

Horren bestez, urteko planak ez du zergatik esparru guztietan eragin beharko, baina urte anitzeko plangintzak bai. Lau edo Bost urtetarako egiten diren plangintzak nahita ez eragin beharko dute esparru guztietan, azken xedeen lorpenean aurrera egin ahal izateko esparru guztiek egin beharko dutelako aurrera. Lau edo bost urteko plangintza esaten dudanean, Eusko Jaurlaritzak bere Euskararen Biziberritze Plan Nagusiak garatzen dituen bost urteko iraupena ematen dielako da. Momentuko biziberritze plan nagusia 2112. urtean bukatzen da eta horregatik nik ere gure ikastetxean garatuko dugun erabilera planari 2112. urte arteko epea eman diot. Horrela 2112. urtean hasiko den plangintza propio berria garatu ahal izango dugu gure ikastetxean Eusko Jaurlaritzak bere Biziberritze Plan berriari ematen dion iraupen berdinarekin.

Behin esparru guztiak zehaztu eta gero esparru horietan nola eragin adieraziko dugu hurrengo atalean.

### 3. ESPARRUAK ETA JUSTIFIKAZIOA.

#### 3.1 Euskararen aholku batzordearen proposamena.

Euskararen erabilera indartzeko plana ikas komunitateko esparru guztietan eragin nahi duen proiektu bat da. Argi gelditzen da esparru zein agente guztiak kontutan hartu gabe gure eragin maila askoz murriztagoa izango litzatekeela. Beraz lehenik eta behin eragin beharko dugun esparru horiek zeintzuk izango diren zehaztu beharra daukagu. Euskararen presentzia esparru guztietan ezin bestekoa da, eskola komunitateko edozein partaidek bere eskubideak bermatuta izan ditzan eta horrez gain euskara erabiltzeko gogoia piztu dadin edo euskara erabiltzea normaltzat jo dezagun eskola bizitzako edozein momentutan.

Azaldutakoa indartzeko 'Euskararen aholku batzordeak ' bere 'ikastetxeetan euskara indartzeko planak EBPN udal ereduarekin uztartzea ' lanean <sup>10</sup>hurrengoa esaten du:

*...ikastetxearen jarduera osoa hartu beharko dugu kontutan eta horretan laguntzeko, hizkuntzen erabilera eremuak aurreikustea oso garrantzi handikoa da. Erabilera eremu horiek aurreikusita, horietan guztietan eragin ahal izateko, hizkuntzen esku-hartze eremuak(Osa, E. Eta Elorza, I.-2002-) definitu ahal izango ditugu. Proposamen gisa bada ere, bi esku hartze eremu aurreikusi ahal ditugu, gutxienez:*

- 1. Eremu pedagogikoa: Ekintza pedagogikoarekin eta gela barruko interakzio didaktikoarekin erlazionatutako hizkuntzaren alderdiak biltzen dituena.*
- 2. Eremu instituzionala: Ikastetxearen kudeaketa eta antolaketarekin eta interakzio orokorrarekin, hau da, gelaz kanpoko harremanekin nahiz ingurunearekin, erlazionatutako hizkuntzaren alderdiak biltzen dituena.*

---

<sup>10</sup> Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea aholku eta proposamen laneko 23. orrialdea..

**HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.**

Bada, ikastetxearen eremu garatua honakoa izan daiteke euskararen aholku batzordearentzat:

Eremu pedagogikoa			Eremu instituzionala		
curricularra.		Ez curricularra	Ikastetxearen antolaketa.	Harremanak.	
Kudeaketa pedagogikoa.	Interakzio didaktikoa.			Familia.	Gizartea orokorrean.
<p><b>curriculum Proiektua:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntz arloko curriculum integratua.</li> <li>Beste arloetako kurikulumak:</li> <li>Hizkuntzen trataera instrumentala, globalizazioa,...</li> </ul> <p><b>Egitasmo osagarriak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara eta euskal kultura.</li> <li>Zeharlerroak.</li> </ul> <p><b>Irakasleen prestakuntza planak.</b></p>	<p><b>Harremanak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Arlo bakoitzeko harreman hizkuntza.</li> <li>Irakasleen hizkuntz ereduak.</li> <li>Irakasle eta ikasleen arteko harreman hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> <li>Ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> </ul> <p><b>Baliabideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gelaren girotea.</li> <li>Informazio Iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jolasaldiak.</li> <li>Jantokia, garrarioa, zerbitzuak eta abar.</li> <li>Eskolaz kanpoko ekintzak.</li> <li>Irakasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> <li>Gainontzeko giza baliabideen hizkuntza.</li> <li>Ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gobernu eta funtzionamendu organoak.</li> <li>Ekonomia administrazioa eta dokumentazioa.</li> <li>Pertsonalaren hizkuntz profilak.</li> <li>Espazioen trataera eta banaketa.</li> <li>Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxearen eta gurasoen arteko harremanak.</li> <li>Familia barruko hizkuntz erabilera eta kalitatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beste ikastetxeekiko harremanak.</li> <li>Herriko beste erakundeekiko harremanak.</li> <li>Administrazioarekiko harremanak.</li> <li>Bestelako harremanak.</li> </ul>

Eta honetaz gain euskararen aholku batzordeak lan esparruak ere bereizten ditu eta beraiek taula<sup>11</sup> baten bitartez azalduakoa laburbiltzen saiatuko naiz:

Eremu instituzionalean hurrengo lan esparruak kokatzen ditu:

- Ikastetxearen antolaketa: Honen barruan gobernu eta funtzionamendu organoak, ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa; espazioen trataera eta banaketa; ikastetxeko informazio eta errotulazio guneak...
- Familia: Eskolaren eta gurasoen arteko harremanak; familia barruko hizkuntza kalitatea eta erabilera...
- Gizartearekiko harremanak: Beste ikastetxeekiko harremanak, herriko beste talde eta erakundeekiko harremanak; bestelako harremanak...

<sup>11</sup> Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea aholku eta proposamen laneko 24. orrialdea.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Irakasleak: Irakasleen hizkuntza profilak, prestakuntza planak eta jarraipena...
- Begirale eta langileak: Begirale eta langileen hizkuntza profilak, prestakuntza planak eta jarraipena...

Eta eremu pedagogikoan hurrengoak:

- Arlo ez curricularrean: jantokiak, autobusak, jolasaldiak, irteerak eta txangoak, aisialdia eta kanpo ekintzak eta etxea eta gurasoak. Hauetan euskararen erabilpena sustatzeko estrategiak bultzatu eta horretarako ekintzak bideratzea proposatzen du.
- Arlo curricularrean:
  - Ikasleen euskararen erabilera eta motibazioa: Ikasgelan ikasleen motibazioa eta euskararen erabilpena sustatzeko estrategiak bultzatu eta horretarako ekintzak bideratu.
  - Ikasleen euskararen kalitatea eta ezagutza: Testu pedagogian eta metodologia komunikatiboan oinarrituta, ahozketasuna landu, ikasleen ekoizpena bultzatu, hizkuntza formala zein ez formala irakatsi eta landu, akatsen zuzenketa, e. a.
  - Irakasleen euskara eredia eta honekiko jarrera: Irakasle/ikasle arteko hizkuntza erabilera eta kalitatea. Zein aldaera erabili eta noiz ; euskara aberatsaren erabilera, e. a.
  - Euskara eta euskal kultura (euskal curriculum): Zehar lerroaren trataera ( euskal unibertsoa eta kultura transmititu).

### **3.2 Egitasmo honen proposamena.**

Honen arabera jadanik argi daukagu gure ikastetxeak dituen ezaugarri propioen arabera zeintzuk izan daitezken guk proposatuko ditugun lan esparruak. Eremu pedagogikoa eta eremu instituzionala oinarritzat hartuta beste bereizketa bat egitea nahiago izan dut. Nire ustez banaketa honek euskararen erabilera hobeto eragitea posible egin diezagukeelako.

- Antolaketa eta eraikuntza curricularrean eremua: hemen ikastetxearen antolaketa eta Hezkuntza komunitatearen eguneroko irakas-ikas egoeren oinarria den eraikuntza kurrikularra bere zehaztapen maila desberdinetan.
- Giza baliabideen eremua: Hemen irakas-ikas egoerekin zuzenean edo zeharka harremana duten agenteak agertuko dira. Alde batetik langileak direnak, ikasleak eta familiak.
- Harremanen eremua: agente desberdinekiko harremanak kontutan izango dira eremu honetan.



## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

Eremu hauek eta Ugaoko ikastetxean zehaztuko ditugun lan esparruen arteko erlazioa hobeto ikus dadin taula baten bidez adieraziko ditugu:

EREMUAK.	LAN ESPARRUAK.	
Ikastetxe antolakuntza eta eraikuntza curricularraren eremua.	Ikastetxearen antolamendua.	Gobernu eta funtzionamendu organoak, ekonomia, administrazioa, espazioen banaketa eta trataera, ikastetxeko informazio eta errotulazio guneak, Ikasleen taldekapena eta ekintzen koordinazioa...
	Eraikuntza curricularraren esparrua.	Ikastetxeko Hezkuntza proiektua, Proiektu kurrikularra, etapako zein zikloetako proiektuak eta ikasgelako programazioetan beharrezko aldaketa bideratu.
Giza baliabideen eta beraien esku hartzearen eremua.	Irakasleak.	Irakasleen hizkuntza eskakizunak, irakasleentzako prestakuntza planak, beraien eguneroko lanean nola txertatu beharrezko aldaketak. Euskararekiko jarrera ona eta aldaera desberdinak eta kalitatezkoak erabiltzea.
	Ikasleak.	Ikasgelan ikasleen motibazioa eta euskararen erabilera sustatzeko estrategiak bultzatu eta horretarako ekintzak bideratu, ahozkoasuna landu, ikasleen ekoizpena bultzatu, hizkuntza formala zein ez formalaren erabileran ikasleria gaitu...
	Begiraleak.	Begiraleen eta langileen hizkuntza eskakizunak, euskararen ezaguera eta erabilera eskatu ikastetxean lan egiteko eta beraien jardueretan euskara erabiltzeko ekintza motibagarriak aurrera eramatea.
	Irakasle ez diren langileak.	Hizkuntza eskakizunak , prestakuntza planak eta jarraipena, euskararen ezagupena eta erabilera. Beraien jardueratan euskararen erabilerako ekintza motibagarriak aurrera eraman.
	Familiak.	Euskararen erabilpena sustatzeko estrategiak bultzatu eta horretarako ekintzak bideratu.
Harremanen eremua.	Idatzizkoak.	Agente guztiekiko harremanetarako protokoloa onartu eta horren arabera jokatu.
	Ahozkoak.	Ahozko harremanak agente desberdinekin izateko protokoloa sortu, onartu eta horren arabera jokatu.

Hau horrela izanik lan esparruak hurrengoak izango lirateke: Ikastetxearen antolamendua, eraikuntza curricularra, Irakasleak, Ikasleak, Begiraleak, Irakasle ez diren langileak, familiak, Idatzizko harremanak eta ahozko harremanak.

- a) Ikastetxearen antolamendua: Lan esparru honen barruan ikastetxeko organo kolegiatuak eta ez kolegiatuak izango ditugu kontutan eta ikastetxeko bizitzan antolaketarekin zerikusia duen guztia. Organo desberdinen bilerak ere kontutan izatekoak izango dira eta hemendik sortutako aktak ere. Esparru honetan ere koordinazio batzordeak aurkituko ditugu eta ikasleen taldekapenei buruzko irizpideak finkatuko dira.
- b) Eraikuntza curricularraren esparruan: Edozein eskola komunitatek izan behar duen eraikuntza kurrikularrean gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren moldaketak zehaztu eta garatuko ditugu esparru honetan. Hezkuntza proiektuan euskara berezko hizkuntza bezala agertu eta honek dakartzan ondorioak zehaztu, euskararen erabilerari buruzko protokoloak ikastetxeko AJAn<sup>12</sup> txertatu, proiektu curricularrean beharrezko moldaketak egin eta ikasgelako zein zikloetako programazioetan aurrekoak garatzeko beharrezkoak diren moldaketak txertatu.
- c) Irakasleak: Esparru honetan irakasleen lan jardunean eragin nahiko da eta horretarako irakasleen formazioa kontutan izango da, irakasleen motibazioan eragin

<sup>12</sup> Antolaketa eta Jarduera Araudia.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

nahi izango da, irakasleen irakaste lanari garrantzia emango zaio eta beraien parte hartzeari garrantzia emango zaio. Irakaste eta ikaste prozesuetan egin beharreko aldaketak era bateratuan eramatea izango da helburu.

- d) Ikasleak: Beraien arteko harremanetan eragin nahi dugu esparru honen bitartez, ikasleen taldekapenak, euskararen erabilera hezkuntza formalean zein ez formalean...
- e) Begiraleak: Beraien jardueran harremanak euskaraz izan daitezen eta euskararen erabilera gero eta handiagoa izan dadin eragin nahi dugu. Begiraleak jantokietan, orduz kanpoko ekintzetan eta zaintza denboratan aurkitzen ditugu. Begiraleen prestakuntzan, euskarazko baliabideetan, koordinazio denboran eta parte hartze bideetan eragin nahi dugu. Motibazioan ere eragin dugu.
- f) Irakasle ez diren langileak: Irakasle ez diren langileak ere plangintzaren barruan integratu nahi ditugu eta bertan aurkitzen ditugu sukaldariak, menpekoak eta hezkuntza teknikariak. Hauengan ere eragin nahi dugu, beraien motibazioa bultzatu, beraien jardueretako harremanak euskaraz izan daitezen bultzatu, ikasleekiko harremanetan hizkuntza erregistro desberdinen erabilera, harreman hauen kalitatea eta egokiera handitzeko formazioa...
- g) Familiak: Oso agente garrantzitsua da hezkuntza komunitatearen barruan. Familien motibazioan eragin nahi dugu plangintzaren bitartez, Beraien garrantzia bultzatuz euskararen erabileraren bultzadan. Euskaldunen jarrera aktiboa bultzatuz eta erdaldunen interesa bilatuz. Ikasleen harremanetarako erregistro desberdinak bilatuz familien artean eta familien parte hartze bideak garatuz.
- h) Idatzizko harremanak: beste instituzioekin ditugun harremanetan eta beste lan eremuetan gauzak pentsa bezala aurrera egiten badute jadanik protokolo eginak izango ditugu honetarako eta protokolo hauen aplikazio soila egin beharko dugu. Protokolo honek eskatzen dituen ekintzen artean hurrengoak aurkitu ditzakegu: Instituzioekiko harremanetan euskara soila erabiltzea ikastetxeak dituen harremanetan, horrela eskatzen duten familiek euskara soilezko idatziak eta zirkularrak izatea, Irakasleekin zein ikastetxeko langile eta begiraleekin idatzizko harremanak euskaraz bakarrik izatea...
- i) Ahoko harremanak: Ahozko harremanetarako protokoloa ere sortzea eta horren arabera jokatzea. Bilerak lehenengo euskaraz egitea euskaldunentzat eta gero gaztelaniaz, hitz egiterako orduan ahalik eta euskara gehien erabiltzea hizlariak ulertzen duen bitartean... Lan esparru honetan bakoitzaren inplikazioa oso garrantzitsua izango da.

#### 4. HELBURUAK ESPARRUKA ETA HAUEK NEURTZEKO ADIERAZLEAK.

##### 4.1 Irakurriko denaren ulermena errazteko argibideak.

Hurrengo atalean Hezkuntza komunitatean euskararen erabileran efikaziaz eragiteko esparruka egin den banaketaren helburuak, hauen lorpena baieztatu edo ezeztatu dezaketen adierazleak eta ekintza posibleak ageri dira. Bederatzi esparru ditugunez eta esparru bakoitzak hainbat helburu, hainbat adierazle eta hainbat ekintza, irakurketa errazteko asmoz elementu bakoitzak izango dituen ikonoak azaldu eta adibide labur bat jarriko dugu:

**Esparruen izenburua beltzatuta agertuko da eta honen atzean esparruaren azalpen laburra agertuko da.**

- Ikono honen bitartez esparru bakoitzeko aspektu desberdinak zerrendatuko ditugu. Aspektuek esparrua zatikatu egiten dute esku hartzearen bitartez esparruaren espektro osoan eragin ahal izateko.
- Ikono honen bitartez aspektu bakoitzean garatu beharreko esku hartzearen helburuak zerrendatuko ditugu.
- Ikono honen bitartez esparruko helburuak neurtzeko balioko diguten adierazleak zerrendatuko ditugu.

- Tauletan eta gidioen bitartez ekintza posibleak agertuko dira.

Adibidea: 1. Esparruko lehenengo aspektuaren 1 helburua. Helburu honen adierazlea eta aktibitateak.

##### **Ikastetxearen antolamendua: (Esparruaren izenburua)**

- **Ikastetxearen antolamendua; aspektu orokorrak: (Esparru barneko Aspektua)**
- Hezkuntza komunitatearen inplikazioa lortzea normalizaziorako bidean (aspektuan esku hartzeko helburua)
- Euskaraz egiten diren bileren % (helburua lortzeko adierazleak)
- Euskaraz egiten diren bileren % parte hartzaileen arabera. (helburua neurtzeko adierazleak)

- Bilerak euskaraz egin eta bertan sortutako dokumentazioa euskaraz izatea.
- Ikasturteko planaren bitartez, klaustroan eta eskola kontseiluan, EEPak dituen ikasturterako helburuak eta helburu orokorrak berrestea eta ala balegokio ikasturtean egingo diren ekintzen zehaztapena adostea.
- Batzorde pedagogikoa lan eta koordinazio batzorde bezala erabiltzea, beharrezkoa den ordu kreditua emanez,. Beraz batzorde pedagogikoa izango Hizkuntza Normalkuntza Batzordea (HNB hemendik aurrera) ere.
- UEEParen eta urteko planaren ebaluazioa egin eta horren arabera beharrezkoa dena egokitu.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

(Hauek dira helburuaren lorpenerako garatu daitezkeen ekintzak)

Azkenik jarraipena errazteko eskema moduan jarriko dut begirada bakarrean elementu guztiak ikusi ahal izateko. Kontutan izan hau adibide bat bakarrik dela eta 4.2 atalean esparru guztietako aspektuak, helburuak, adierazleak eta ekintza posibleak izango dituzula.

Eremua.	Ikastetxe antolakuntza eta eraikuntza curricularraren eremua.
Esparrua.	<b>Ikastetxearen antolamendua: (Esparruaren izenburua)</b>
Aspektua.	➤ aspektu orokorrak.
Helburua.	○ Hezkuntza komunitatearen inplikazioa lortzea normalizaziorako bidean.
Adierazleak.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskaraz egiten diren bileren % (helburua lortzeko adierazleak</li><li>• Euskaraz egiten diren bileren % parte hartzaileen arabera. (helburua neurtzeko adierazleak)</li></ul>
Ekintza posibleak.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Bilerak euskaraz egin eta bertan sortutako dokumentazioa euskaraz izatea.</li><li>- Ikasturteko planaren bitartez, klaustroan eta eskola kontseiluan, EEPak dituen ikasturterako helburuak eta helburu orokorrak berrestea eta ala balegokio ikasturtean egingo diren ekintzen zehaztapena adostea.</li><li>- Batzorde pedagogikoa lan eta koordinazio batzorde bezala erabiltzea, beharrezkoa den ordu kreditua emanez,. Beraz batzorde pedagogikoa izango Hizkuntza Normalkuntza Batzordea (HNB hemendik aurrera) ere.</li><li>- UEEParen eta urteko planaren ebaluazioa egin eta horren arabera beharrezkoa dena egokitu.</li></ul>

### 4.2 Esparruak, aspektuak, helburuak, adierazleak eta ekintzak

**Ikastetxearen antolamendua:** Ikastetxeetako organo kolegiatu eta ez kolegiatuen artean ikastetxeko organo gorena, klaustroa, zuzendaritza talde eta batzorde pedagogikoa aurkitzen ditugu gure ikastetxeko organigraman. Antolaketan zer esan handia daukate eta beraz hurrengo helburuak jarriko dizkiogu:

#### ➤ **Ikastetxearen antolamendua; aspektu orokorrak:**

- Hezkuntza komunitatearen inplikazioa lortzea normalizaziorako bidean.
- Euskaraz egiten diren bileren %
- Euskaraz egiten diren bileren % parte hartzaileen arabera.
- Hizkuntza normalkuntza batzordeari emaniko ordu kopurua.
- Euskararen erabilera planetik ikasturteko planean onartutako helburuen kopurua.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Bilerak euskaraz egin eta bertan sortutako dokumentazioa euskaraz izatea.
- Ikasturteko planaren bitartez, klaustroan eta eskola kontseiluan, EEPak dituen ikasturterako helburuak eta helburu orokorrak berrestea eta ala balegokio ikasturtean egingo diren ekintzen zehaztapena adostea.
- Batzorde pedagogikoa lan eta koordinazio batzorde bezala erabiltzea, beharrezkoa den ordu kreditua emanez,. Beraz batzorde pedagogikoa izango Hizkuntza Normalkuntza Batzordea (HNB hemendik aurrera) ere.
- UEEP<sup>13</sup>aren eta urteko planaren ebaluazioa egin eta horren arabera beharrezkoa dena egokitu.

- Euskararen erabilera areagotzea Hezkuntza komunitatean.
- Ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeari begira egiten diren ekintzen eta kanpainen kopurua.
- Euskaraz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %
- Elebidunez argitaratzen diren dokumentuen %
- Gaztelaniaz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %

- Langile guztien prestakuntza bultzatu eta erraztu.
- NOLEGA deialdietan parte hartu.
- Ikasketa eredu elebidunaren alde egitea eta bultzatzea publizitate egokia eginez.
- Ikastetxean ekoizten diren dokumentu grafiko guztiak (oharrak, barne dokumentazioa, kartelak, pankartak...) euskaraz zuzenak eta egokiak izango direla ziurtatu.

- Hezkuntza komunitatean euskararen erabileraren beharra sortzea.
- Enpresa euskaldunekin hitzartutako baliabideen kopurua.
- Euskaldunak ez diren enpresekin hitzartutako baliabideak.
- Hezkuntza komunitatekoen artean euskararen erabilerarako protokoloa ezagutzen dutenen kopurua %
- Euskaraz bakarrik dauden materialen kopurua eta %.

- Material berriak euskaraz erosi.
- Kanpoko eragileekin ekimenak antolatzerako orduan, euskaraz egin dezaketenen aldeko diskriminazioa.
- Klaustroak eta irakasleen arteko bilerak euskaraz egin.
- Proiektuak daramatzaten irakasle eta langileentzako bai ahozko zein idatzizko euskaren erabilerarako protokoloak helarazi eta gogoraraziko zaizkie.
- Hezkuntza komunitateari euskara bultzatzeko jokabideak aurkeztu eta onartu.
- Urtero hezkuntza komunitateak euskararen erabileran eragiteko adostutako neurriak gogoraraziko dira. Gehien bat etorri berriak diren agenteei.
- Hezkuntza komunitateari bere dituen beharrei buruz galdetuko zaio eta behar hauek asetzen saiatuko beharko da.

<sup>13</sup> Ugao LHiko euskara erabilera plana. Esku artean duzun lana.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Paisaia linguistikoa euskaraz dagoela ziurtatu.
- Euskaraz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.
- Elebidunez dauden kartelen kopurua eta %.
- Gaztelaniaz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.
- Ikastetxeko euskarazko web orrialdeak.
- Harrera euskaraz egin daitekeenaren kartel kopurua.

- Paisai linguistikoaren diagnostikoa egin.
- Diagnosiaren emaitzak aztertu eta erabakiak hartu.
- Ikastetxeko web orria euskaraz diseinatu.
- Akatsak zuzentzeko paisaia linguistikoa erabili.
- Gazte hizkera eta freskotasuna lantzeko paisaia linguistikoa erabili esamoldeak, esaera zaharrak... jarritz.
- Jolaslekuko paisai linguistikoa berri: euskal jokoetan aritzeko egokitu. Eskolako pasillo, eskailera, jangelatan... Euskal kulturaren eta euskararen aldeko mezuak jarri.
- Bizkaierari garrantzi handiagoa ematen hasi eta erabiltzen hasi.
- Gaztelaniaren adiera jaso behar bada, euskarazkoaren nagusitasuna erabili proportzio eta tipografia bereziz.
- Kartel guztiak diseinatu informazio bila datozenei euskara ere erabil dezaketela.

### ➤ **Ikastetxearen antolamendua; Organo kolegiatuak:**

- OOG<sup>14</sup> ak eta Klaustroak UEETa bere egitea.
- Euskararen erabilera bultzatzeko jarduerak eta ekintzetan zein prestakuntzan parte hartzen duten zenbatekoa eta % estamentuka.

- Euskara maila hobetzeko eta euskara bera erabiltzeko proposatzen diren ekintza eta jardueretan parte hartu.
- Hezkuntza komunitatearen euskara maila etengabe hobetzeko jarduerak proposatu eta egin.
- Deialdi eta aktak euskaraz sortu eta bilerak euskara hutsean egin.
- Ugaoko urteko euskara erabilera plana onartu eta bertan agertzen dena bete, ikasturte bukaeran, egindakoa baloratu eta hurrengo ikasturterako ekarpenak egin.
- Ikasleen taldekapenerako irizpide berriak adostu eta onartu, ikasgelatan nukleo euskaldun bat sortzeko asmoarekin. Euskaldunak euskaldunekin jarri taldekapenak egiterakoan, euskarazko harremanak normaltasunez garatzea posible izan dadin.

- Zuzendaritza taldeak aurretik jarritako helburuen lorpena bultzatzea eta zuzendaritza taldearen bete beharren artean kokatzea.
- Hizkuntza Normalkuntza Batzordean zuzendaritza taldeak sartzen dituen parte hartzaileak.
- Zuzendaritza taldeak Ugao ikastetxeko erabilera planari egiten dizkion ekarpenen kopurua.

<sup>14</sup> Ikastetxeko organo gorena.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Zuzendaritza taldeko lan ildoen artean sartze UEEPa.
- UEEParen helburuekin bat egitea.
- UEEParen helburuak lortzeko eta ekintzak aurrera eramateko baliabideak lortzen buru belarri aritzea.
- Zuzendaritza taldearen jokabideak erreferente izatea ikastetxeko batzar desberdinetan.

- Batzorde pedagogikoan euskararen erabilera plangintzari buruz gogoeta egitea, koordinatzea eta ekintzen ebaluazioa bultzatzea etengabeko hobetzea bermatzeko.
- Baliabide informatikoen bitartez euskaraz zabalduko informazioaren kopurua eta %
- Batzorde pedagogikoak ebaluatutako ekintzen kopurua.
- Batzorde pedagogikoak ebaluatzea bultzatu duen ekintzen eta proiektuen kopurua.
- Batzorde pedagogikoak egindako hobekuntza proposamenen kopurua eta onartutakoen %

- Ikastetxeko informazio orokorra euskaraz zabaldu baliabide informatikoen bitartez.
- Sortutako dokumentu ereduak ezagutarazi eta erabili.
- Informatika hizkuntzaren jarraipena egin.
- Euskaraz kalitatez idazten laguntzeko softwarea aurkeztu.
- Behar diren euskarazko dokumentu ereduak sortu eta digitalizatu.
- Ekoizten den multimedia materiala euskaraz egin eta mediateka hornitu.
- Bizkaieraz dauden materialak eskuratu.
- Liburutegiaren erabilera didaktikorako plana prestatzea euskarazko baliabideen erabilera sustatuz.
- Liburutegiaren erabilera areagotzeko planaren zirriborroa egin eta klaustroak onar dezan aurkeztu.
- Argitaratzen diren euskarazko egunkariak eta gazte aldizkariak erosi.
- Arlo pedagogikorako materiala aztertu, bai eduki bai hizkuntza aldetik ere; eta dagokionean hizkuntza aberastu.

**Eraikuntza curriculararen esparrua:** ikastetxearen autonomia pedagogikoa bere eraikuntza curricular propioaren garapenean eta eraikuntzan oinarritzen da. Beraz hezkuntza komunitateak bere beharren arabera eraiki beharko ditu ikaste irakaste prozesuak arautuko dituzten dokumentu desberdinak. Eraikuntza curricularrak hiru zehaztapen maila ditu, marko orokor batetik hasita testuinguru konkretu bat duen marko zehatz batera heldu arte. Bide hori da ikastetxeetan jorratu beharra daukaguna eta gure kasuan, gure marko zehatzak euskararen erabilera handiagotzearen beharra dauka. Horretarako gure esku dagoen curriculumaren zehaztapenean esku hartu beharra daukagu eta hezkuntza komunitateak aldaketa edo esku hartze hauek onartu beharko ditu.

- **Ikastetxeko hezkuntza proiektua. (IHP).** *Hezkuntza komunitatearen xedeak eta helburuak biltzen dituen dokumentua da. Ikastetxeko organo gorenak onartu beharko du eta Ugaoko Hezkuntza komunitateak hezkuntzari buruz duen ikuspuntua, irakaste eta ikaste prozesuetan parte hartzen duten aldagai guztiak nola landuko diren eta esku hartze honen ondorioz espero diren emaitzak bildu beharko*

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

*ditu dokumentu honek. Beraz, euskarak gure hezkuntza komunitatean izango duen tratamendua agertu beharko da eta tratamendu honen ondorioz lortu nahi ditugun emaitzak.*

- IHPan beharrezko aldaketak bultzatzea eta UEEPa bertan txertatzea. Hau lortzeko beharrezko diren pauso guztiak ematea. Eta Hezkuntza komunitateko eguneroko bizitzan aldaketa hauek nabaritzeko beharrezko pausoak ematea.
- Euskaldunak bateratuta dituzten taldeen kopurua.
- Euskarari berezko hizkuntza estatusa ematen zaio?
- Ikasleen guraso euskaldunen %
- Ikasleen guraso Erdaldunen %
- Ikasleen guraso biak euskaldunak %
- Ikasleen guraso bakarra euskalduna %
- Hezkuntza normalkuntza batzordean parte hartzen dutenen kopurua.
- IHPn ikasturtean zehar eman diren aldaketak.

- IHPa bera euskaraz egotea eta bertan agertzea ikastetxeko dokumentu guztiak euskaraz egon behar dutela.
- Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela agertzea eta horren ondorioz eman beharreko estatus desberdindua dokumentuan biltzea.
- Matrikulatzen diren ikasleen inguru eta jatorri soziolinguistikoa aztertuko dela bildu behar da dokumentu honetan, horrela taldekapen egokiagoak egin ahal izateko, euskaldunak euskaldunekin bilduz hizkuntza eredia sendotzeko.
- IHPn Ugaoko ikastetxeko euskaren erabilera garatzeko plana eta hizkuntza proiektuak txertatu.
- Hizkuntza normalkuntzaren Batzordearen osaera eta parte hartzeko modua dokumentuan biltzea.

- **Ikastetxeko Proiektu Curricularra. (IPC).** Ikastetxeko proiektu curricularrak ikasgelan bertan emango diren irakaste ikaste prozesu guztiak arautuko ditu eta ikasleek ezagupen berrien lorpenean egingo duten ibilbidea markatuko du. Bertan aurkitzen ditugu etapetako eta zikloetako helburuak, edukiak, metodologia, ebaluazioa eta orientabide didaktikoak. Aniztasunari eta behar berezidun ikasleei behar bezalako erantzuna emateko irizpideak ere. Beraz, euskararen erabilpena bultzatu beharra badago dokumentu honek era egokian bildu beharko ditu hizkuntzak lantzeari eta nola lantzeari buruzko Curriculuma. Euskararen erabilera bultzatzeko euskal kulturak eta euskal Curriculuma duen garrantzia agerikoak dira eta ikastetxeak bere proiektu kurrikularra berrikusi beharko ditu euskal Curriculuma oinarri hartuta.
- IPCan behar diren aldaketak txertatzea eta onartzea eta ikasleen euskararen ezagutza ziurtatzea.
- Ikastetxeko proiektu kurrikularra berritua al dago?
- Erabilerari ematen zaion garrantzia ebaluazioa egiterako orduan %
- Bizkaierazko hiztegia erabiltzen duten ikasmaterialen kopurua eta %
- IPCan ikasturtean zehar egin diren aldaketa kopurua.



## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Euskal kurrikuluma oinarri izanda IPCa berrikusi eta aldatu.
- Erabilera kontutan hartzen dituzten helburuak txertatu Euskara eta literatura ikasgaiko proiektuan.
- Gaitasunaren dagoen aspektu bezala hartzea erabilera. Ikaslea kompetentea izan dadin derrigorrezkoa da erabilera. Ez da nahikoa jakitea egoera desberdinetan dakigun hori erabili egin behar dugu eta hori ebaluazioan ere kontutan izan beharko litzateke.
- Ugao inguruko hizkera ezagutzeko eduki berriak txertatu, (Batuak onartuta dituen bizkaierazko berbak).
- Euskara arloko testu liburuak sakonki aztertu; IPCarekin bat datozeela konfirmatu eta beharrezko balitz osatu.
- Ikastetxeko informatika mundua euskaraz izatea.

- **Antolamendu eta Jardueretarako Araudia. (AJA).** Araudi honek ikastetxean gertatzen diren harremanak arautzen ditu.
  - Antolamendu eta jarduera araudia euskaraz izatea.
  - Euskara Erabilerako Planeko erabakiak Antolamendu eta Jarduera Araudian txertatzea.
  - Antolamendu eta Jarduera Araudian txertatu diren erabakien kopurua.
  - AJA euskaraz al dago?

- Euskararen erabilerako onartutako protokoloak bere barne hartu. Klaustroak onartu dezan proposatu eta OOGak berretsi dezan proposatu.

- **Ikasgelako programazioak:** Ikasgelako programazioak ikasgela barruan ematen den ikaste eta irakaste prozesua arautzen du. Beraz, zehaztaperen mailarik handiena duen programazioa da eta ikasle talde osoari edo bakar batzuei bideraturik egongo da. Ikasle hauek erantzun al izateko garatua egongo da eta beraien beharrak erantzuteko eginga izango da. Talde desberdinek programazio desberdinak izan beharko dituzte. Bestalde Programazio honen helburuen lorpenak IPCko helburuak garatzen joatea ahalbidetuko du eta aldi berean zehaztaperen maila handiagoa behar duen '*behar berezidun*' ikasleren baten programazioaren oinarria izango da.
  - Ikasgelako programazioetan euskararen erabilera handiagoa izan dadin beharrezkoak diren aldaketak Txertatu.
  - Ikasgelan dauden euskarazko materialen %
  - Ikasgelan dauden gaztelaniazko materialen %
  - Euskarazko liburuen kopurua eta %
  - Gaztelaniazko liburuen kopurua eta %
  - Ikasleek eginiko erakusketen kopurua.
  - Ikasleek beste ikasle batzuen aurrean eginiko erakustaldien kopurua.
  - Ikasgelan dugun Euskarazko softwarearen %

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Ikasgelan sortzen edota erabiltzen den guztia beti euskaraz izatea (Gaztelaniazko ikasgaia eta Ingelesezkoa salbu) eta behar izanez gero gaztelaniara itzultzea.
- Ikasgelan landutako lanen ondorioz sortutako materialetan behar bezalako kalitatea bermatzea.
- Ikasgelako baliabide informatikoen mundua euskaraz izatea.
- Ikasgelako baliabide didaktikoen bilduma osatzen joan.
- Ikasgelan dagoen material pedagogikoa aztertu eta behar dena berritu edo sortu.
- Ikasgelako liburutegia osatzea.
- Ikasgelako liburutegiaren erabilera areagotzeko plana martxan jarri.
- Ikasgelan euskal idazleei buruzko txokoa martxan jarri.
- Lan konkretuetarako materiala ere euskaraz lortu eta ez badago euskaratu.
- UEEP dituen ekintzak programazioan txertatu eta ikasleen parte hartzea bultzatu motibazio kanpainen bitartez.

**Irakasleen esparrua:** Irakasleria ikasleen ezagupenen lorpenean agente oso garrantzitsua dira. Ezagutza eta ikaslearen arteko bitartekari lana egiteaz aparte ikasleentzako eredu garrantzitsu bat direlako. Horren bestez ikasleentzako hiztun eredu ere izango dira irakasleak. Beraz, hizkuntza gaurkotua, zuzena, egokia eta erregistro desberdinetakoa erabiltzen trebatu beharra daukagu. Lan honetarako aspektu desberdinak izango dira kontutan eta hauek motibazioa, ezagutza maila, erabilera eta partaidetza izango dira. Orokorrean irakasleen artean euskaraz egiteko motibazioa landu behar da, irakasleen euskara maila hobetu behar da, ikastetxeko egoera guztietan euskaraz aritu beharra dago eta irakasle guztien inplikazioa ezin bestekoa da.

- **Motibazioa:** Ugaoko Hezkuntza komunitatean euskararen erabilera handiagotzeko planaren barruan irakasleen normalkuntzarako kontzientzia eta aldeko konpromisoa ondo barneratu beharra dauka irakasleriak. Irakasleen inplikazioa, aldeko jarrera eta borondatea ezin bestekoa da.
- Euskararen normalizazioan irakasleok dugun garrantziaz jabetzea eta helburuak eta norberaren inplikazioak argi izatea.
- Zenbat irakaslek ezagutzen dute UEEPa.<sup>15</sup> %
- Irakasleen artean parte hartzeko prest dauden kopurua eta %

- Normalizazioari buruzko saioa eskaini.
- Motibazio saioak irakasleentzat antolatu.
- UEEPa inguruko ikuspegi orokorra eta globalaren informazioa eman.
- Klaustro batean planaren berri eman.
- Erabileraren neurketa egiteko erabiliko den metodoaren eta emaitzen berri eman.

- Euskararen normalizazioan irakasle oro arduratsu izatea, ardura hori batzordekideengan soilik gera ez dadin.
- Aurreko ikasturteko ekintzen artean irakasleriaren parte hartze aktiboa izan duten ekintzen kopurua. % auto ebaluazioaren arabera.

<sup>15</sup> Ugao LHI ikastetxeko euskara erabiltzeko plana. Irakurtzen ari zaren plangintza.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Irakasleen esperientzi esanguratsuak elkartrukatzeko gunea sortu.
- Aurreko urteko ekintza arrakastatsuak aipatu eta irakasleen lanaren garrantzia goraiatu.
- Ekintza guztien berri eman eta laguntza etengabekoa izan.

➤ **Ezagutza:** Euskararen erabilera handitzeko eta euskarari buruzko ezagupenak gaurkotzeko antolatuko diren ekintzak. Euskal kurrikulumaren garapena egin ahal izateko eta ikastetxeko kurrikulum proiektua moldatu al izateko beharrezko prestakuntza.

- Euskarazko ikastaroen eskaintza ezagutaraztea: **IRALE**<sup>16</sup>, **BERRITZEGUNE**<sup>17</sup>, **GARATU**<sup>18</sup>, **HERRIKO EUSKALTEGIAK**, **HITZALDIAK**,...
- Ikastetxera heltzen den eskaintzaren kopurua.
- Eskola 2.0 programak ematen dizkigun baliabideak erabilia eskaintza horren argitaratzearen kopurua.

- Informazioa irakasleriaren eskura jarri; horma irudiak, hitzaldiak; zirkularrak;...
- Ikastaro desberdinen eskaintza irakasleen eskura jarri eskola 2.0 programa ere erabiliz.

- Irakasleen euskararen erabilerarako gaitasuna hobetzea, aberastea ahoz zein idatziz eta ezagupena sendotzea, gaurkotzea, kalitatea hobetzea...
- IRALE programan parte hartzen duten irakasleen kopurua.
- Ikastetxean aurreko ikasturtean eginiko IRALE programako ikastaroak edo mintegiak.
- Euskararen erabilera indartzeko egiten den formaziotik zenbat da Bizkaieraz.

- HNBk egoera aztertu eta beharren arabera IRALE ikastaroak proposatu.
- IRALE ikastaro desberdinak ikastetxean egin.
- Ikastaroan ikasitakoa zabaldu eta ikastetxean jakin arazi.
- Euskara teknikoa jorratu.
- Euskalkia lantzeko ikastaroa antolatu.
- Eskualdeko esaerak ezagutu eta baita bertako gazte hizkera ere.

- Euskararen kalitateari buruzko hausnarketa egitea.
- Hizkuntzaren erabileran zuzendu beharreko akatsen aipamenean erabilitako baliabideen kopurua (kartelak, ordenagailu lanak, irradi saioak, grabazioak,...)

- Akatsak lantzeko irizpideak adosteko saioak egin.
- Euskaltzaindiak argitaratzen dituen gomendio eta arauak etapetan zabaldu.

- Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologiak ezagutzea eta hausnarketa egitea.

<sup>16</sup> Irakasleen euskarazko formazioa.

<sup>17</sup> Ikastetxeetarako aholkularitza lana egiten duten zentroak.

<sup>18</sup> Irakasleriarentzako formazio orokorra.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Aurreko ikasturtean metodologiari buruzko hartu diren adostasunen kopurua.
- Ahozko hizkuntza lantzeko azertu diren materialen kopurua.

- Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologiaren inguruko prestakuntza jaso.
- Hizkuntz metodologia hausnartzeko eta adostasunak bilatzeko saioak egin.
- Euskara lantzeko estrategiak ezagutu eta ikasi.
- Irakasleen hizkuntza kalitatean eragina duten estrategietan jantzi.
- Aho hizkuntzaren lanketarako materialak azertu.

- Curriculumaren euskal dimentsioari, Euskal kulturari, Euskal Herriari buruzko formazioa jaso.

- Euskal kulturari eta Curriculumaren euskal dimentsioari buruzko formazio saioen kopurua.

- Euskal kultura eta mitologia landu.
- Euskarazko web orrialdeen helbideak ezagutu eta erabilera bultzatu.

- **Erabilera:** Aspektu honek irakasleen euskararen erabilera ahoz zein idatziz gauzatzeko eta areagotzeko, prestatuko diren helburuak bilduko ditu.

- Irakasleen euskara erabileraren diagnosia egitea.

- Euskarazko harremanen %
- Euskaraz zein gaztelaniaz egiten diren harremanen %
- Gaztelaniaz egiten diren harremanen%

- Irakasleen mintzagrama egin.

- Euskara lankideen arteko komunikazio tresna izatea.

- Euskaraz egiten diren bileren kopurua %
- Mintzagramaren arabera eremu ez formalean gaztelania agertzen den %

- Lehen hitza euskaraz egin.
- Irakasleen arteko bilerak euskaraz egin.
- Bileretako dokumentazio guztia euskaraz egin.
- Irakasleen aurrean beti euskaraz egin.
- Erabilera bultzatzeko kanpainak egin.
- Eremu ez formalean euskararen erabileran aurrerapausoak eman.

- Euskalkien erabilera suspertzea.

- Bizkaieraz hitz egin dezakeen irakasleriaren %
- Bizkaieraz zuzen idatzi dezakeen irakasleriaren %

- Bizkaierako ikastaroan landutakoa sakondu eta praktikan jarri.

- **Partaidetza:** Irakasleen inplikazio zuzena oso garrantzitsua da. Jarrera eta asmo onak funtsezkoak dira, baina irakasleek eragile zuzenak ere izan behar dute.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

Proposamenak egin, iniziatiba hartu, hobekuntzak suspertu eta antolatu diren ekintzetan parte zuzena hartu eta beste eragileek parte hartu dezaten bultzatu.

○ UEEPean ikastetxeko irakasle guztien inplikazioa ziurtatzea.

- HNPrak irakasleriarengandik heldutako ideien kopurua.
- HNPrak irakasleriarengandik heldutako ideietatik onartutakoen %
- Bildutako auto ebaluazioen kopurua eta %

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Proiektuan parte hartu ideiak emanez.</li><li>- Batzordeari ideiak emateko bideak zabaldu.</li><li>- Ekintzak zikloko bileretan landu eta ardurak konpartitu.</li><li>- Irakasleen parte hartzea ekintza konkretuetan.</li><li>- Irakasleen parte hartzearen auto ebaluaziorako tresna prestatu.</li></ul> |
|--|

**Ikasleen esparrua:** Ikasleen esparrua oso garrantzitsua da. Azken finean beraiek dira euskararen etorkizuna eta hurrengo belaunaldiei euskararen presentzia helaraziko diotenak. Beraz euskara erabiltzeko motibaturik egon beharra daukate eta euskara erabiltzeko beharra nabaritu behar dute. Euskararekin identifikatu beharra daukate eta beraientzat euskara garrantzitsua izan behar da.

➤ **Motibazioa:** Euskararen erabilera handituko bada ikasleen harremanetarako hizkuntza bezala motibaturik egon beharra daukate eta euskara atsegin dituzten ekintzekin lotu behar dute.

○ Ikasleen euskararekiko kontzientzia sustatzea, euskara eta euskararen aldeko jarrera positiboa bultzatzea.

- Ikasleek ikasturtean zehar borondatez parte hartzen duten kanpainen kopurua.
- Kanpainetan borondatez parte hartzen duten ikasle kopurua.

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Euskararen erabilera bultzatzeko motibazio kanpainak martxan jartzea.</li><li>- Euskal kulturaren euskararen duen garrantzia helarazteko ekintzak.</li><li>- Euskararen balioa edozein hizkuntzaren parekoa dela helarazteko ekintzak.</li></ul> |
|--|

○ Euskararen alde ludikoa ezagutarazi eta kirol zein jolasak euskaraz irakatsi.

- Heziketa fisikoan euskal kultura oinarri duten unitate didaktikoen kopurua.
- Euskal kulturaren oinarritutako tradiziozko jolasei buruzko unitate didaktikoen kopurua.

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Euskal kulturaren oinarritutako joko tradizionalak.</li><li>- Heziketa fisikoan ikasten diren joko berriak.</li><li>- Oraindik gure inguruan estereotipatu gabeko kirolak praktikatzea.</li></ul> |
|---|

➤ **Ezagutza:** Ikasleek euskara erabili ahal izateko honen ezagutza gero eta hobeago izan beharra daukate eta euskararen erabilera egoera desberdinetan bultzatu beharra dago. Eremitan akademikoan bakarrik erabili ezker euskara akademikoa bakarrik

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

ikasteko aukera egon daitekeelako eta horrela gelatik kanpo ez genuke lortuko ikaslea euskaraz aritzea.

- Ikasgelara euskara erregistro desberdinak erabiltzen dituzten hezkuntza komunitateko beste zenbait eragile ekarri, euskarazko erregistro desberdinak ezagutzeko.
- Ikasturtean zehar ikastetxera gonbidatuta etorritako pertsonen kopurua.

- Ikasleen aitona eta amonak ikastetxeko bizitzan parte hartzera gonbidatu.
- Inguruko euskaldun zaharren bisitak beraien pasarte interesgarriak kontatzeko.

- Edukiak lantzeko ikasgela ez den beste testuinguru batzuk erabili eta euskara zuzena eta egokia landu testuinguruaren eta ekintzaren arabera.
- Euskararen erregistro desberdinen ezagutza lantzeko helburuarekin ingurura egin diren irteerak.

- Inguruko baserri, komertzio eta enpresetara irteerak egin.

- Ikasgelan ahozkoahizketari garrantzi handiagoa eman.
- Ikasturtean zehar gela barruan eginiko ahozko ekintzen kopurua.
- Ikasturtean zehar beste gela batzuetan eginiko ekintzen kopurua.

- ikasgela barruan gai desberdinei buruzko mahai inguruak, elkarrizketak, ahozko esposizioak... bultzatu eta proposatu.
- Beste ikasgela batzuetan parte hartzea bultzatu ahozko esposizioak eta kontu kontaketa egiteko.

➤ **Erabilera:** Garrantzitsua da ikasleek euskara jator egiteko baliabideak izatea baina are garrantzitsuagoa oraindik euskara erabiltzea.

- Hizkuntza konpetentzia neurtu eta ez bakarrik hizkuntza gaitasuna.
- Erabilera eskasagatik euskarazko ikasgaia gainditu gabe duten ikasleen kopurua eta %

- Ebaluazioa egiterako orduan garrantzi handiago eman erabilerari eta balorazioa egiteko orduan pisu handiago eman.

- Hizkuntza erregistro desberdinak erabiltzea.
- Ikasleak zein irakasleak ez diren hezkuntza komunitateko edo komunitate kanpoko eragileekin batera garatutako ekintzen kopurua.

- Hizkuntza erregistro desberdinak erabiltzen dituzten beste agenteekin elkarrizketak eduki.
- Bizkaieraz egiten duten bertokoekin elkarrizketak, kontu kontaketa, antzerkiak egin...

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Beraientzat esanguratsuak eta miretsiak diren pertsonai euskaldunak ekarri ikasgelara eta beraiekin solasean aritu..

○ Jolas berriak euskarazko hiztegiarekin ikastea bai jolas orduan zein jantoki denboran erabiltzeko.

- Ikasturtean zehar euskarazko hiztegiarekin ikasitako jolasen kopurua.
- Behaketaren bitartez ikasitako jolas berrien erabilera ziurtatu eta kuantifikatu.

- Jolas berriak landu eta euskarazko hiztegi jatorra erabili jolas hauen garapenean.

○ Batuaz onartuta dauden bizkaierazko hitzak ezagutu eta erabili testuinguru desberdinetan eta Ikasgela ez den beste testuinguru batzuetan elkarrizketak bultzatu.

- Euskaren erabilera bultzatzeko helburuarekin eginiko irteeren kopurua.<sup>19</sup>

- Toki euskaldunetara irteerak egin, gero besteei kontatzeko asmoarekin.  
- Ikasgelako egunerokoan batuaz onartuta dauden bizkaierazko hiztegia sartzeko irizpideak jarri. Asteko egunak, Hilabeteak, sinonimoak e.a. Sekuentzia bat egin maila desberdinetan sartzen joateko.

➤ **Parte hartzea:** Ikasleak normalean beti egoten dira ekintzetan parte hartzeko prest. Baina batzuetan bultzada bat behar izaten dute.

○ Ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeko ekintzetan parte hartzea. Parte hartze aktiboa saritua izatea eta parte hartzea testu inguru formalean eta ez formalean izatea.

- Saria lortu duten ikasleen kopurua eta %
- Borondatez parte hartu ez dutenen kopurua.

- Erabilera bultzatzeko kanpainak sariak edukitzea horrela ikasleak motibatuago egon daitezten. (euskarazko pelikulak, zinemara irteerak, kiroldegira irteera, ur gudak, meriendak lagun artean...).

- Parte hartzea neurtzeko ebaluazio protokolo bateratua eta sistematizatua.

**Begiraleak:** Begiraleak Hezkuntza komunitate beste eragile garrantzitsu bat dira, gure plangintzan garrantzi izugarria hartzen dute esparru ez formalean beraiek dutelako ikasleengan gehien eragiteko aukera. Euskara hizkuntz akademikoa izateari utzi nahi badio, indar handia egin behar dugu hezkuntzaren esparru ez formalean. Honek posible egingo baitu euskarazko harremanen eremua zabaltzea eta jendeak euskaraz errazago egitea ikasgelatik kanpo.

➤ **Motibazioa:** Begiraleak erantzukizun handia daukate eta horregatik egiten duten lanaren garrantzia onartu behar diegu, beraiek euren lana baloratua ikusi dezaten. Honela begiraleak lan horretarako motibatuak egongo dira.

<sup>19</sup> Aurretik ere erabili dugu adierazle hau edo oso antzekoa beraz behin bakarrik neurtu beharko dugu. Baina kontutan izan beharko da bi helbururen lorpenerako izango dugula kontuan.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Begiraleen lana estimatu eta baloratu, egiten duten lanaren kontzientzi hartzea eta hizkuntza normalkuntza batzordean presentzia izatea eta erabakietan parte hartzea.
- Begiraleek egindako ekarpenen kopurua.
- HNBk onartutako ekarpenen kopurua eta %

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Begiraleekin bilerak egin.</li><li>- Beraien lana egiteko beharrezko baliabideen lorpena erraztu.</li><li>- Beraien ekimenak kontuan izan.</li></ul> |
|--|

- **Ezagutza:** Begirale guztiek ezagutzen dute euskara eta egiteko gaitasuna daukate, baina beraiek ere guztiok bezala gaurkotze eta berritze lana egin beharra daukate.
- Begiraleen euskarazko gaitasuna hobetzea aberastea ahoz zein idatziz eta ezagupena sendotzea, kalitatea hobetzea...
- Euskararen erabilera beraien jardueran bultzatzeko beharrezko ekintzak eta protokoloak bultzatzea.
- Beraien jardueratarako hiztegi aberatsa izatea eta ikasleei bereganaraztea.
- Prestakuntza saioak ordutegi barruan izatea, hiztegi berria, Euskal jolasak, Euskal dantzak, Euskal Kirolak, Informatika euskaraz,....
- Begiraleak parte hartzen duten formazio saioen kopurua.
- Begiraleek beraien esku hartzean euskararen erabilera bultzatzeko eginiko ekintzen kopurua.

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Begiraleentzako formazio saioak. Alde batetik euskarazko eskolaz kanpoko formazio zehatzetan eta bestetik irakasleriak duen formazioan parte hartzea.</li></ul> |
|---|

- **Erabilera:** Beraien jardueratan euskararen erabilera bultzatu beharra daukate eta euskararen presentzia lehenetsi egingo dute. Horretarako orokorrak diren motibazio kanpainetarako ere beraiekin kontaktuko da.
- Begiraleen jardueratan bai eskolaz kanpokoetan zein jantokikoetan euskararen erabileraren diagnostia egitea.
- Euskarazko harremanak dituztenen kopurua eta %
- Gaztelaniazko harremanak dituztenen kopurua eta %
- Harreman elebidunak dituztenen kopurua eta %

- |  |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Jantokiko denboran ikasleen arteko harremanen diagnostia egin. Posible bada mintzagrama egingo da.</li></ul> |
|--|

- Begiraleen jardueratan parte hartzen dutenen komunikazio tresna bakarra euskara izatea.
- Jantokiko ekintza gidatuetan parte hartu dutenen ikasleen kopurua eta %



## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Prestatutako ekintzetan parte hartzaileak euskara bakarrik erabiltzearen konpromisoa hartu beharko dute.

- Bizkaieraren erabilera bultzatzea.
- Euskarazko paisai linguistikoa erabiltzea. (Ordutik kanpoko ekintzetan eta jantokian).
- Bizkaierazko hiztegia duten kartelen kopurua.

- Begirale eta beste eragileen arteko harremanetan bizkaierazko hiztegia erabiltzen hasi.  
- Bizkaierazko hiztegia jantokiko paisai linguistikoaren parte izatea.

➤ **Parte Hartzea:** Esan dugunez UEEPan begiraleen parte Hartzea ezin bestekoa da. Parte hartze hori garrantzitsua da Hezkuntza komunitatearentzat ikasleen euskarazko harremanak handitzeko bidea delako.

- Hizkuntza Normalkuntza Batzordean parte hartu eta erabakietan parte hartu.
- Ikastetxean egiten diren motibazio kanpainen parte hartu eta beraien jarduerak kontutan hartu.
- Begiraleen koordinatzaileak parte hartu dituen bileren kopurua eta %
- Begiraleak parte hartu dituzten kanpainen kopurua eta %

- Begiraleek HNBan parte hartzaile bat izango dute eta bera izango da beste begiraleekin zubi eta koordinazio lanak egingo dituenak.  
- Hezkuntza komunitatean garatzen diren kanpainen parte hartzeko beharrezkoak diren aldaketak bultzatu.

**Irakasle ez diren langileak:** Irakasle ez diren langileak ere oso garrantzitsuak dira ikastetxeko funtzionamendu egokirako eta beraien kasuan hezkuntza harreman zuzenik ez duten arren ikasleekin gehienetan, euskararen erabileraren hobekuntzaz ari garenean beraien ere kontutan izan behar ditugu, ikastetxean ematen diren harremanen aniztasuna handitu egiten dutelako eta besteontzako harremanetan aberastasuna suposatzen duelako. Esparru honetan ere aspektu berdinak izango ditugu kontuan.

➤ **Motibazioa:** Hezkuntza komunitatearen parte direla jakin behar dute eta koherentziaz jokatu.

- Euskararen erabileraren hobekuntzari garrantzia eman.
- Beraiek jokatu dezaketen paperari garrantzia eman.
- Euskararen erabileraren hobekuntzan agente aktibo sentitu.
- Irakasle ez diren langileek egindako ekarpenen kopurua.
- HNBk onartutako ekarpenen kopurua eta %

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

- Begiraleekin bilerak egin.
- Beraien lana egiteko beharrezko baliabideen lorpena erraztu.
- Beraien ekimenak kontuan izan.

- **Ezagutza:** Euskara erabiltzeko lehenengo ezagutu egin behar da. Hemen baditugu zenbait langile ez dutenak guztiz ondo euskara ezagutzen eta euskara erabiltzea kostatu egiten ziela.
- Euskara erabiltzeko moduko euskara ezagutza bultzatzea, Beharrezko diren ikastaro eta liberazioen bitartez.
- Ikasleekin harremanak euskaraz izateko gutxienezko maila lortu.
- Ikastetxeak eta instituzioek beharrezko diren baliabideak jartzea.
- Formazio ikastaroetan parte hartzen dutenaren kopurua eta %

- Maila desberdinetako formaziorako aukerak eman eta posible den heinean lana erraztu.

- **Erabilera:** Hezkuntza komunitateko beste agenteekin dituzten harremanak euskaraz izan behar dira beraiek ere ikasleen erreferente bihurtzen direlako zenbait momentutan.
- Ikasleekin euskaraz egiten saiatu beti.
- Euskarazko hiztegi minimoa erabili.
- Euskararen erabileraren aldeko konpromisoa bultzatu.
- Lehenengo hizkuntz perfila duten langileen kopurua.
- Bigarren perfila duten langileen kopurua.
- Perfilik ez duten langileen kopurua.

- Eguneroko harremanetan erabiltzen diren esaldiak euskaraz erabiltzea. Egunon, ondo, zer moduz, zelan, arrastion...

- **Parte hartzea:** egoeraren hobekuntza nahi bada beraien parte hartzea funtsezkoa da.
- Hizkuntza Normalkuntza Batzordean parte hartu eta erabakietan parte hartu.
- Ikastetxean egiten diren motibazio kanpainetan parte hartu eta beraien jarduerak kontutan hartu.
- Irakasle ez diren langileen koordinatzaileak parte hartu dituen bileren kopurua eta %
- Irakasle ez diren langileak parte hartu dituzten kanpainen kopurua eta %

- Irakasle ez diren langileek HNBan parte hartzaile bat izango dute eta bera izango da beste begiraleekin zubi eta koordinazio lanak egingo dituen.  
- Hezkuntza komunitatean garatzen diren kanpainetan parte hartzeko beharrezkoak diren aldaketak bultzatu behar dira.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

**Familiak:** Ugaoko Euskararen erabilera plangintzan familien esparrua funtsezkotzat hartzen dugu. Euskaradun familietan hizkuntzaren transmisiorako oinarrizko baliabidea da, batez ere hizkuntza ez formaletan eta kolokialetan eta aurretik sarreran eta testuinguruan azaldu bezala, badaude familia euskaldun zaharrak baina ez dutenak bermatzen hizkuntza transmisioa. Hizkuntzekiko jarreretan familiek badute bere eragina: Ikasketekiko jarrera, euskara erabiltzekoa, kultura adierazle... Horrez gain, ikastetxean komunitate oso esanguratsua izanik, euskararen erabileran zer esan handia duen kolektiboa da. Hemen ere aspektu desberdinetan eragin nahi da, gurasoen euskarekiko kontzientzian, euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eta parte hartzean.

### ➤ **Motibazioa:**

- Familietan euskararen aldeko jarrera positiboa bultzatzea.
- D ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %
- B ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %
- A ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %
- Motibazio saioetara etortzen den familien kopurua eta %

- Seme-alabak matrikulatzen dituztenean euskara ikasteak eta euskaraz aritzeak zein onura dakarkien neska mutilei azaldu gurasoei.
- Beraien jarrerak seme-alabengan duten eraginaz jabetu arazi: azalpen teorikoak eskaini, ahoz edota idatziz.
- Ikastetxean euskararen inguruan egiten duguna jakinarazi.
- Eskolan antolatuko diren hainbat ekintzataraz gonbidatu, beraien seme alabak euskaraz eta euskararekin gozatzen ikus ditzaten.
- Motibazio saioak antolatu.
- Euskara ez dakiten familiek bere seme alabei ikasketetan laguntzeko dituzten kezkak argitzen lagundu.

- Euskararen normalizazioan gurasoak duten garrantziaz jabetu araztea. Gure hizkuntzari bultzada emateko beraiek funtsezko eragileak direla sentiaraztea.
- Familientzat eginiko motibazio saioen kopurua.
- Euskararen ikasketan parte hartu nahi duten familien kopurua.

- Hizkuntza normalizazioari buruz prestakuntza saioa eskaini.
- Motibazio saioak gurasoentzat antolatu.
- Soziolinguistikako informazioa eman, euskararen egoera eta eragileak jakin arazi: datuak eskaini eta hausnarketa proposatu eta bideratu.
- Gurasoak euskalduntzea edo alfabetatzeak euren seme alabengan izan dezakeen eragin positiboa adierazi.
- Familien hizkuntz transmisioaz ohartarazi.

### ➤ **Ezagutza:**

- Familien euskararen ezagutza maila hobetzea, areagotzea: euskaradunek kalitatea handitzea; euskara ez dakitenek ikastea.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Familien artean guraso edo eta aitona-amona euskaldunen kopurua eta %
- Familien artean guraso edo aitona-amona erdaldunen kopurua eta %
- Familia eta guraso erdaldunen artetik, zenbatek parte hartu duen euskarazko ikastaroren batean %

- Maila ezberdinetako euskara ikastaroak antolatu.
- Euskara ikastera animatuz kanpaina egin urte hasieran.
- Gai ezberdinei buruzko ikastaroak euskaraz egin.
- Euskaraz aritzeko eta seme alabekin euskara erabiltzeko ikastaro praktikoak antolatu: Kantak, jolasak, esamoldeak, ipuin kontaketa...
- Euskaraz diren ikastaroen informazioa helarazi.

### ➤ **Erabilera:**

- Familiek beraien arteko euskara erabilera areagotzea.
- Familia eta ikastetxeetako kideen arteko euskararen erabilera areagotzea.
- Ekimenetan parte hartzeko prest dagoen familia partaide kopurua.
- Euskaldun zaharrak direnen kopurua eta %

- Beraiek duten euskara ezagutza elkarrekin aberastu. Berba lagun, mintza lagun, kafea euskaraz... ekimenak.
- Guraso euskaldunak euskara erabiltzera animatu.
- Euskara eremu guztietan ikus eta entzun dadin zaindu.
- Familiek antolatutako jardueretan euskararen erabilera sustatzea eskatu.
- Lehen hitza euskaraz izatea proposatu.
- Familiek dakiten herriko euskara ona dela sinestarazten saiatu: herri hizkera goraiatu eta baloratu.

### ➤ **Parte Hartzea:**

- Euskararen erabilpenaren bultzadan familia bakoitzaren ahalegina eskatzea, jarrera aktiboa bultzatzea.
- Ekintza desberdinetan parte hartzen duten familien ordezkarien kopurua.
- Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu duten famili ordezkarien kopurua.

- Ikasturte hasieran eta ikasturtean zehar egiten diren bileretan euskara transmititu eta erabiltzeko lagungarriak izan daitezkeen aholkuak eta tresnak eskainiko dira.
- Euskara bultzatzeko eskolan eta eskolaz kanpo egiten diren ekitaldietan parte hartzera bultzatuko zaie.
- Euskarazko material berriak ezagutarazi. Ikasturtean zehar, liburu, jolas, disko eta bideo gomendagarrien zerrenda bidali.
- Euskararen aldeko ekintzetan partaide aktibo izan daitezen gonbidatu. Zer egin dezaket azaldu eta proposamen zehatzak egin.
- Gurasoek eragin euren seme alabek euren lagunekin euskaraz egin dezaten.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

- Familien partaidetza bultzatzea, ikastetxeko eginkizunetan parte hartzera erakarriz.
- Familiek egindako ekarpenen kopurua.
- Familiek egindako ekarpenetatik onartutakoak %
- Familiek ikastetxeko bizian parte hartuz antolatutako ekintzen kopurua.

- Familiak ekarpenak egitera animatu.
- Familiak ikastetxeko bizitzan integratu, ikastetxean gela barruan antolatutako ekintzen berri emanez eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
- Gurasoak ikastetxean antolatutako kultur ekitaldietan parte hartzera gonbidatu.
- Ikastetxean euskararen inguruan egindako ekimen eta erabakien berri eman.
- Ikastetxeko irratian parte hartu eta irradi saioak prestatu.

- Familien parte hartzea bultzatzea Euskararen erabilpen planean eragin dezaten eta HNBan parte hartzera bultzatu.
- Ikasturtean zehar familien batzordeak eginiko bileren kopurua.
- Ikasturtean zehar familien batzordeak eta ikastetxearen batzordeak eginiko bileren kopurua.

- Familien hizkuntza normalkuntza batzordea osatzera bultzatu.
- Ikastetxeko hizkuntza normalkuntza batzordean gurasoak egoteko gonbita luzatu, familien partaidetza izateko, informazioa beste familiei pasa diezaieten eta euskararen erabilerarako esparru guztiek kontutan izateko.
- Gurasoen batzordea eta ikastetxeko batzordearen arteko etengabeko koordinazioa bideratu.
- Informazioa helarazteko bide egokiak zabaldu.

**Idatzizko harremanak:** Ikastetxeak hezkuntza komunitateko agenteekin zein beste instituzioekin idatzizko harreman ugari ditu. Euskararen erabileran garrantzitsua da harreman hauek bideratzeko orduan euskararen presentzia lehenestea.

- Idatzizko harremanetan euskara lehenestea.
- Idatzizko harremanak euskaraz bakarrik eskatu dituzten familien kopurua eta %
- Euskaraz bakarrik irteten diren idatzien %
- Ikastetxera euskaraz bakarrik heltzen diren idatzien %
- Ikastetxera gaztelaniaz bakarrik heltzen diren idatzien %
- Ikastetxera elebidunez heltzen diren idatzien %

- Idatzizko harremanak euskara hutsez izateko inizatibak antolatu.
- Idatzizko harremanetan euskararen presentzia lehenetsia bermatu.
- Euskal autonomia erkidegoko beste instituzioekin euskarazko idatziak erabili eta ez elebidunak.
- Hezkuntza komunitateko beste agenteekin ikastetxeak izan behar dituen idatzizko harremanetan euskara soilik erabiltzeko aukera eman.
- Euskaraz ez dakiten familiekiko harremanetan ere euskara lehenetsia egongo da.

## HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.

**Ahozko harremanak:** Askotan jendeak ez du euskara erabiltzen ez dakielako ziurtasunez zein izango den komunikazio hizkuntza. Beraz ikastetxean inizatiba desberdinak bideratu beharko dira elkarrizketak eta harremanak euskaraz izan daitezen.

- Hezkuntza komunitateko eragileen arteko ahozko harremanetarako hizkuntza lehenetsia euskara izatea.
- Euskaraz hutsez egindako bileren kopurua eta %
- Gaztelania hutsez egindako bileren kopurua eta %
- Elebidunez egindako bileren kopurua eta %

- Euskarazko komunikazioa egon dadin saiakera ugari egingo dira.
- Lehenengo hitza beti euskaraz izango da, bai aurrez aurreko harremanetan bai telefonoz.
- Bilerak egiteko orduan lehenengo euskaraz hutsez egingo dira horrela nahi dutenentzat eta hau bukatzerakoan gaztelania hutsez.

### 4.3 Sintesi eskema.

Hurrengo taulan aurretik garatutako elementu guztiak agertzen dira ekintza posibleak izan ezik. Honen bitartez espero da orain arte irakurritakoa borobiltzea. Lehenengo zutabeen hiru eremuak agertzen dira, Bigarren zutabeen eremu hauek zehazten dituzten esparruak, Hirugarren zutabeak esparru barneko aspektuak adierazten dituzte, laugarrenean aspektu barruan zehazten diren helburuak eta bosgarrenean helburu hauek neurtzeko balio diguten adierazleak. Azkenik esan helburuaren koadrikula barruan orrialde zenbaki bat idatziko dugula eta hori izango da helburu horrekin zerikusia duten ekintza posibleak aurkitzeko erabiliko dugun gida nahi izan ezker.

<b>IKASTETXE ANTOLAKUNTZA ETA ERAIKUNTZA CURRICULARAREN EREMUA.</b>	<b>Ikastetxearen antolamenduaren esparrua.</b>	<b>Aspektu orokorrak.</b>	Hezkuntza komunitatearen inplikazioa lortzea normalizaziorako bidean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz egiten diren bileren %</li> <li>• Euskaraz egiten diren bileren % parte hartzaileen arabera.</li> <li>• Hizkuntza normalkuntza batzordeari emaniko ordu kopurua.</li> <li>• Euskararen erabilera planetik ikasturteko planean onartutako helburuen kopurua.</li> </ul>
			Euskararen erabilera areagotzea Hezkuntza komunitatean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeari begira egiten diren ekintzen eta kanpainen kopurua.</li> <li>• Euskaraz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %</li> <li>• Elebidunez argitaratzen diren dokumentuen %</li> <li>• Gaztelaniaz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %</li> </ul>
			Hezkuntza komunitatean euskararen erabileraren beharra sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa euskaldunekin hitzartutako baliabideen kopurua.</li> <li>• Euskaldunak ez diren enpresekin hitzartutako baliabideak.</li> <li>• Hezkuntza komunitatekoen artean euskararen erabilerarako protokoloa ezagutzen dutenen kopurua %</li> <li>• Euskaraz bakarrik dauden materialen kopurua eta %.</li> </ul>
			Paisaia linguistikoa euskaraz dagoela ziurtatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.</li> <li>• Elebidunez dauden kartelen kopurua eta %.</li> <li>• Gaztelaniaz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.</li> <li>• Ikastetxeko euskarazko web orrialdeak.</li> <li>• Harrera euskaraz egin daitekeenaren kartel kopurua.</li> </ul>

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

<b>Eraikuntza curricularren esparrua.</b>	<b>Organo kolegiatuak.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ OOG<sup>20</sup>ak eta Klaustroak UEEPa<sup>21</sup> bere egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erabilera bultzatzeko jarduera eta ekintzetan zein prestakuntzan parte hartzen duten zenbatekoa eta % estamentuka.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zuzendaritza taldeak aurretik jarritako helburuen lorpena bultzatzea eta zuzendaritza taldearen bete beharren artean kokatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza Normalkuntza Batzordean zuzendaritza taldeak sartzen dituen parte hartzaileak.</li> <li>• Zuzendaritza taldeak Ugao ikastetxeko erabilera planari egiten dizkion ekarpenen kopurua.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Batzorde pedagogikoan euskararen erabilera plangintzari buruz gogoeta egitea, koordinatzea eta ekintzen ebaluazioa bultzatzea etengabeko hobetzea bermatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baliabide informatikoen bitartez euskaraz zabaldutako informazioaren kopurua eta %</li> <li>• Batzorde pedagogikoak ebaluatutako ekintzen kopurua.</li> <li>• Batzorde pedagogikoak ebaluatzea bultzatu duen ekintzen eta proiektuen kopurua.</li> <li>• Batzorde pedagogikoak egindako hobekuntza proposamenen kopurua eta onartutakoen %</li> </ul>
	<b>IHP</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ IHPan beharrezko aldaketak bultzatzea eta UEEPa bertan txertatzea. Hau lortzeko beharrezko diren pauso guztiak ematea. Eta Hezkuntza komunitateko eguneroko bizitzan aldaketa hauek nabaritzeko beharrezko pausoak ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaldunak bateratuta dituzten taldeen kopurua.</li> <li>• Euskarari berezko hizkuntza estatusa ematen zaio?</li> <li>• Ikasleen guraso euskaldunen %</li> <li>• Ikasleen guraso Erdaldunen %</li> <li>• Ikasleen guraso biak euskaldunak %</li> <li>• Ikasleen guraso bakarra euskalduna %</li> <li>• Hezkuntza normalkuntza batzordean parte hartzen dutenen kopurua.</li> <li>• IHPn ikasturtean zehar eman diren aldaketak.</li> </ul>
<b>IPC</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ IPCan behar diren aldaketak txertatzea eta onartzea eta ikasleen euskararen ezagutza ziurtatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko proiektu curricularra berritua al dago?</li> <li>• Erabilerari ematen zaion garrantzia ebaluazioa egiterako orduan %</li> <li>• Bizkaierazko hiztegia erabiltzen duten ikasmaterialen kopurua eta %</li> <li>• IPCan ikasturtean zehar egin diren aldaketa kopurua.</li> </ul>	
<b>AJA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Antolamendu eta jarduera araudia euskaraz izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolamendu eta Jarduera Araudian txertatu diren erabakien kopurua.</li> </ul>	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskara Erabilerako Planeko erabakiak Antolamendu eta Jarduera Araudian txertatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• AJA euskaraz al dago?</li> </ul>	

<sup>20</sup> Ikastetxeko organo gorena.

<sup>21</sup> Ugao LHiko euskara erabilera plana.



HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

<b>GIZA BALIABIDEN ETA BERAIEEN ESKU HARTZEAREN EREMUA.</b>	<b>Irakasleak</b>	<b>Ikasgelako programazioak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ikasgelako programazioetan euskararen erabilera handiagoa izan dadin beharrezkoak diren aldaketak Txertatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikasgelan dauden euskarazko materialen %</li> <li>● Ikasgelan dauden gaztelaniazko materialen %</li> <li>● Euskarazko liburuen kopurua eta %</li> <li>● Gaztelaniazko liburuen kopurua eta %</li> <li>● Ikasleek eginiko erakusketen kopurua.</li> <li>● Ikasleek beste ikasle batzuen aurrean eginiko erakustaldien kopurua.</li> <li>● Ikasgelan dugun Euskarazko softwarearen %</li> </ul>
		<b>Motibazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskararen normalizazioan irakasleok dugun garrantziaz jabetzea eta helburuak eta norberaren inplikazioak argi izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Zenbat irakaslek ezagutzen dute UEEPa.<sup>22</sup> %</li> <li>● Irakasleen artean parte hartzeko prest daudenen kopurua eta %</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskararen normalizazioan irakasle oro arduratsu izatea, ardura hori batzordekideengan soilik gera ez dadin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Aurreko ikasturteko ekintzen artean irakasleriaren parte hartze aktiboa izan duten ekintzen kopurua. % auto ebaluazioaren arabera.</li> </ul>
		<b>Ezagutza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskarazko ikastaroen eskaintza ezagutaraztea: IRALE<sup>23</sup>, BERRITZEGUNE<sup>24</sup>, GARATU<sup>25</sup>, HERRIKO EUSKALTEGIAK, HITZALDIAK,...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ikastetxera heltzen den eskaintzaren kopurua.</li> <li>● Eskola 2.0 programak ematen dizkigun baliabideak erabilia eskaintza horren argitaratzearen kopurua.</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Irakasleen euskararen erabilerarako gaitasuna hobetzea, aberastea ahoz zein idatziz eta ezagupena sendotzea, gaurkotzea, kalitatea hobetzea...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● IRALE programan parte hartzen duten irakasleen kopurua.</li> <li>● Ikastetxean aurreko ikasturtean eginiko IRALE programako ikastaroak edo mintegiak.</li> <li>● Euskararen erabilera indartzeko egiten den formaziotik zenbat da Bizkaieraz.</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskararen kalitateari buruzko hausnarketa egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Hizkuntzaren erabileran zuzendu beharreko akatsen aipamenean erabilitako baliabideen kopurua (kartelak, ordenagailu lanak, irratia saioak, grabazioak,...)</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologiak ezagutzea eta hausnarketa egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Aurreko ikasturtean metodologiari buruzko hartu diren adostasunen kopurua.</li> <li>● Ahozko hizkuntza lantzeko aztertu diren materialen kopurua.</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Curriculumaren euskal dimentsioari, Euskal kulturari, Euskal Herriari buruzko formazioa jaso.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskal kulturari eta Curriculumaren euskal dimentsioari buruzko formazio saioen kopurua.</li> </ul>
			<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Irakasleen euskara erabileraren diagnostia egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskarazko harremanen %</li> <li>● Euskaraz zein gaztelaniaz egiten diren harremanen %</li> <li>● Gaztelaniaz egiten diren harremanen %</li> </ul>

<sup>22</sup> Ugao LHI ikastetxeko euskara erabiltzeko plana. Irakurtzen ari zaren plangintza.

<sup>23</sup> Irakasleen euskarazko formazioa.

<sup>24</sup> Ikastetxeetarako aholkularitza lana egiten duten zentroak.

<sup>25</sup> Irakasleriarentzako formazio orokorra.

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

Ikasleak	Partaideak	○ Euskara lankideen arteko komunikazio tresna izatea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz egiten diren bileren kopurua %</li> <li>• Mintzagramaren arabera eremu ez formalean gaztelania agertzen den %</li> </ul>
		○ Euskalkien erabilera suspertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizkaieraz hitz egin dezakeen irakasleriaren %</li> <li>• Bizkaieraz zuzen idatzi dezakeen irakasleriaren %</li> </ul>
		○ UEEPe an ikastetxeko irakasle guztien inplikazioa ziurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• HNPrak irakasleriarengandik heldutako ideien kopurua.</li> <li>• HNPrak irakasleriarengandik heldutako ideietatik onartutakoen %</li> <li>• Bildutako auto ebaluazioen kopurua eta %</li> </ul>
	Motibazioa	○ Ikasleen euskararekiko kontzientzia sustatzea, euskara eta euskararen aldeko jarrera positiboa bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleek ikasturtean zehar borondatez parte hartzen duten kanpainen kopurua.</li> <li>• Kanpainetan borondatez parte hartzen duten ikasle kopurua.</li> </ul>
		○ Euskararen alde ludikoa ezagutarazi eta kirol zein jolasak euskaraz irakatsi.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heziketa fisikoan euskal kultura oinarri duten unitate didaktikoen kopurua.</li> <li>• Euskal kulturaren oinarritutako tradiziozko jolasei buruzko unitate didaktikoen kopurua.</li> </ul>
	Ezagutza	○ Ikasgelara euskara erregistro desberdinak erabiltzen dituzten hezkuntza komunitateko beste zenbait eragile ekarri, euskarazko erregistro desberdinak ezagutzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasturtean zehar ikastetxera gonbidatuta etorritako pertsonen kopurua.</li> </ul>
		○ Edukiak lantzeko ikasgela ez den beste testuinguru batzuk erabili eta euskara zuzena eta egokia landu testuinguruaren eta ekintzaren arabera.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erregistro desberdinen ezagutza lantzeko helburuarekin ingurura egin diren irteerak.</li> </ul>
		○ Ikasgelan ahozketasunari garrantzi handiagoa eman.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasturtean zehar gela barruan eginiko ahozko ekintzen kopurua.</li> <li>• Ikasturtean zehar beste gela batzuetan eginiko ekintzen kopurua.</li> </ul>
	Erabilera	○ Hizkuntza konpetentzia neurtu eta ez bakarrik hizkuntza gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilera eskasagatik euskarazko ikasgaia gaintu gabe duten ikasleen kopurua eta %</li> </ul>
		○ Hizkuntza erregistro desberdinak erabiltzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleak zein irakasleak ez diren hezkuntza komunitateko edo komunitate kanpoko eragileekin batera garatutako ekintzen kopurua.</li> </ul>
		○ Jolas berriak euskarazko hiztegiarekin ikastea bai jolas orduan zein jantoki denboran erabiltzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasturtean zehar euskarazko hiztegiarekin ikasitako jolasen kopurua.</li> <li>• Behaketaren bitartez ikasitako jolas berrien erabilera ziurtatu eta kuantifikatu.</li> </ul>

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Batuaz onartuta dauden bizkaierazko hitzak ezagutu eta erabili testuinguru desberdinetan eta Ikasgela ez den beste testuinguru batzuetan elkarriketak bultzatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaren erabilera bultzatzeko helburuarekin eginiko irteeren kopurua.<sup>26</sup></li> </ul>
	Partaidetza	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeko ekintzetan parte hartzea. Parte hartze aktiboa saritua izatea eta parte hartzea testu inguru formalean eta ez formalean izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saria lortu duten ikasleen kopurua eta %</li> <li>• Borondatez parte hartu ez dutenen kopurua.</li> </ul>
Begiraleak	Moti bazio	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Begiraleen lana estimatu eta baloratu, egiten duten lanaren kontzientzi hartzea eta hizkuntza normalkuntza batzordean presentzia izatea eta erabakietan parte hartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Begiraleek egindako ekarpenen kopurua.</li> <li>• HNBk onartutako ekarpenen kopurua eta %</li> </ul>
	Ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Begiraleen euskarazko gaitasuna hobetzea aberastea ahoz zein idatziz eta ezagupena sendotzea, kalitatea hobetzea...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Begiraleak parte hartzen duten formazio saioren kopurua.</li> <li>• Begiraleek beraien esku hartzean euskararen erabilera bultzatzeko eginiko ekintzen kopurua.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskararen erabilera beraien jardueran bultzatzeko beharrezko ekintzak eta protokoloak bultzatzea.</li> </ul>	
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Beraien jardueratarako hiztegi aberatsa izatea eta ikasleei bereganaraztea.</li> </ul>	
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Prestakuntza saiok ordutegi barruan izatea, hiztegi berria, Euskal jolasak, Euskal dantzak, Euskal Kirolak, Informatika euskaraz,....</li> </ul>	
	Erabilera	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Begiraleen jardueratan bai eskolaz kanpokoetan zein jantokikoetan euskararen erabileraren diagnostia egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko harremanak dituztenen kopurua eta %</li> <li>• Gaztelaniazko harremanak dituztenen kopurua eta %</li> <li>• Harreman elebidunak dituztenen kopurua eta %</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Begiraleen jardueratan parte hartzen dutenen komunikazio tresna bakarra euskara izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jantokiko ekintza gidatuetan parte hartu dutenen ikasleen kopurua eta %</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Bizkaieraren erabilera bultzatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizkaierazko hiztegia duten kartelen kopurua.</li> </ul>
	Partaidetz a	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hizkuntza Normalkuntza Batzordean parte hartu eta erabakietan parte hartu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Begiraleen koordinatzaileak parte hartu dituen bileren kopurua eta %</li> <li>• Begiraleak parte hartu dituzten kanpainen kopurua eta %</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ikastetxean egiten diren motibazio kanpainen parte hartu eta beraien jarduerak kontutan hartu.</li> </ul>	
Ir ak M	Moti	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Euskararen erabileraren hobekuntzari garrantzia eman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasle ez diren langileek egindako ekarpenen kopurua.</li> </ul>

<sup>26</sup> Aurretik ere erabili dugu adierazle hau edo oso antzekoa beraz behin bakarrik neurtu beharko dugu. Baina kontutan izan beharko da bi helbururen lorpenerako izango dugula kontuan.

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

<b>Familiak</b>	<b>Ezagutza</b>	○ Beraiek jokatu dezaketen paperari garrantzia eman.	● HNBk onartutako ekarpenen kopurua eta %
		○ Euskararen erabileraren hobekuntzan agente aktibo sentitu.	
		○ Euskara erabiltzeko moduko euskara ezagutza bultzatzea, Beharrezko diren ikastaro eta liberazioen bitartez.	● Formazio ikastaroetan parte hartzen dutenaren kopurua eta %
		○ Ikasleekin harremanak euskaraz izateko gutxienezko maila lortu.	
		○ Ikastetxeak eta instituzioek beharrezko diren baliabideak jartzea.	
		○ Euskararen erabileraren aldeko konpromisoa bultzatu.	
	<b>Erabilera</b>	○ Euskarazko hiztegi minimoa erabili.	● Lehenengo hizkuntz perfila duten langileen kopurua.
		○ Euskararen erabileraren aldeko konpromisoa bultzatu.	● Bigarren perfila duten langileen kopurua.
			● Perfilik ez duten langileen kopurua.
	<b>Partaidetza</b>	○ Hizkuntza Normalkuntza Batzordean parte hartu eta erabakietan parte hartu.	● Irakasle ez diren langileen koordinatzaileak parte hartu dituen bileren kopurua eta %
		○ Ikastetxean egiten diren motibazio kanpainetan parte hartu eta beraien jarduerak kontutan hartu.	● Irakasle ez diren langileak parte hartu dituzten kanpainen kopurua eta %
	<b>Motibazioa</b>	○ Familietan euskararen aldeko jarrera positiboa bultzatzea.	● D ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %
○ Euskararen normalizazioan gurasoak duten garrantziaz jabetu araztea. Gure hizkuntzari bultzada emateko beraiek funtsezko eragileak direla sentiaraztea.		● B ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %	
		● A ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %	
		● Motibazio saioetara etortzen den familien kopurua eta %	
<b>Ezagutza</b>	○ Euskararen normalizazioan gurasoak duten garrantziaz jabetu araztea. Gure hizkuntzari bultzada emateko beraiek funtsezko eragileak direla sentiaraztea.	● Familientzat eginiko motibazio saioen kopurua.	
	○ Euskararen normalizazioan gurasoak duten garrantziaz jabetu araztea. Gure hizkuntzari bultzada emateko beraiek funtsezko eragileak direla sentiaraztea.	● Euskararen ikasketan parte hartu nahi duten familien kopurua.	
<b>Ezagutza</b>	○ Familien euskararen ezagutza maila hobetzea, areagotzea: euskaradunek kalitatea handitzea; euskara ez dakitenek ikastea.	● Familien artean guraso edo eta aitona-amona euskaldunen kopurua eta %	
		● Familien artean guraso edo aitona-amona erdaldunen kopurua eta %	
<b>Era bide</b>	○ Familien euskararen ezagutza maila hobetzea, areagotzea: euskaradunek kalitatea handitzea; euskara ez dakitenek ikastea.	● Familia eta guraso erdaldunen artetik, zenbatak parte hartu duen euskarazko ikastaroren batean %	
	○ Familiek beraien arteko euskara erabilera areagotzea.	● Ekimenetan parte hartzeko prest dagoen familia partaide kopurua.	
		● Euskaldun zaharrak direnen kopurua eta %	

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

		Partaidetza	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Familia eta ikastetxeetako kideen arteko euskararen erabilera areagotzea.</li> <li>○ Euskararen erabilpenaren bultzadan familia bakoitzaren ahalegina eskatzea, jarrera aktiboa bultzatzea.</li> <li>○ Familien partaidetza bultzatzea, ikastetxeko eginkizunetan parte hartzera erakarriz.</li> <li>○ Familien parte hartzea bultzatzea Euskararen erabilpen planean eragin dezaten eta HNBan parte hartzera bultzatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintza desberdinetan parte hartzen duten familien ordezkarien kopurua.</li> <li>• Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu duten famili ordezkarien kopurua.</li> <li>• Familiek egindako ekarpenen kopurua.</li> <li>• Familiek egindako ekarpenetatik onartutakoak %</li> <li>• Familiek ikastetxeko bizian parte hartuz antolatutako ekintzen kopurua.</li> <li>• Ikasturtean zehar familien batzordeak eginiko bileren kopurua.</li> <li>• Ikasturtean zehar familien batzordeak eta ikastetxearen batzordeak eginiko bileren kopurua.</li> </ul>
HARREMANEN EREMUA	Idatzizko Harremanak		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Idatzizko harremanetan euskara lehenestea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idatzizko harremanak euskaraz bakarrik eskatu dituzten familien kopurua eta %</li> <li>• Euskaraz bakarrik irteten diren idatzien %</li> <li>• Ikastetxera euskaraz bakarrik heltzen diren idatzien %</li> <li>• Ikastetxera gaztelaniaz bakarrik heltzen diren idatzien %</li> <li>• Ikastetxera elebidunez heltzen diren idatzien %</li> </ul>
	Ahozko harremanak		<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hezkuntza komunitateko eragileen arteko ahozko harremanetarako hizkuntza lehenetsia euskara izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz hutsez egindako bileren kopurua eta %</li> <li>• Gaztelania hutsez egindako bileren kopurua eta %</li> <li>• Elebidunez egindako bileren kopurua eta %</li> </ul>

## 5. EBALUAZIOA.

Ebaluazio orokor, ulerkor eta eraginkor bat garatu nahi dugu, teknikoki ona izateaz aparte bideragarria. Ebaluazio prozesuan inplikaturako instantzia guztien zabaltasunak, ebaluazio praktikak aurretiaz diseinatutako eta guztien artean adostutako estrategia batzuei erantzutea, behar du. Eskola komunitateko partaide guztiek jarduera hauek era koherente batean garatu ditzaten. Hezkuntza prozesuak bideratzen dituzten dokumentu instituzionalen artean elkarreragile lana egingo du ebaluazioak, dokumentu hauen arabera plangintzak diseinatutako ibilbidean zein puntutan gauden adieraziko digulako.

Ebaluazioaren bitartez hurrengoak lortu nahi dut:

- Informazioa biltzea: ebaluatu ahal izateko lehenik eta behin, ebaluatu nahi ditugun aspektuei buruzko informazioa bildu beharra daukagu eta horretarako egokiena informazioa era sistematikoan biltzea da. Informazioak, garrantzitsua eta esanguratsua izan behar du eta ebaluatu nahi ditugun aspektuekin erlazionaturik egon beharra dauka. Informazioa biltzeko prozedurak fidagarriak izan behar dira, teknika desberdinak erabiliko ditugu eduki berdinak ebaluatzeko horrela emaitzak kontrastatu ahal izateko:
  - o Lehenengo ebaluazio diagnostikoa: plangintzaren hasieran egiteko dagoena. Honek proiektuko ardatz nagusiei buruzko informazioa biltzen lagunduko digu.
  - o Ikasturte bukaerako txostenean: Ikasturte bakoitzean jarritako helburuen lorpen maila adieraziko digu.
  - o Proiektu bukaerako ebaluazioa eta hurrengo proiektu baterako balizko froga diagnostikoa: proiektuaren bukaeran informazio baliagarria emango digute.
  - o Irakaslearen eta gurasoen ebaluazioak: Hezkuntza komunitateko agente desberdinen feed back-a bakarka edo taldeka.
- Informazioa interpretatu: Proiektu hau egiterakoan, ikastetxean eta lan taldean jarritako baldintzak eta bete beharrak kontutan hartuz, informazioa interpretatu aurretik, ebaluatua zer izango denaren erabakia hartua daukagu . Hau da ikas komunitateak bete beharko dituen helburuak erabakita ditugu. Azken finean informazioaren interpretazioa egiterakoan ,egiten dena edo egiten duguna erreferentzia konkretu batzuekin konparatuko dugu eta erreferentzia hauek hurrengoak izango dira: ikas komunitate bera, zenbat aurreratu duen ikusirik beraren aurre behar izan maila eta bukaerakoa konparatuz; eta helburu batzuen lorpena, ikas komunitatearen behar izan maila, aurretik ezarritako, programazioko helburuekin konparatu egiten da ebaluazio irizpide eta ebaluazio tresnen bitartez.
- Erabakiak hartu: informazioa biltzeak eta interpretatzeak derrigorrez pertsoneri eta prozesuei buruzko erabakiak hartu beharra eragingo digu. Informazioaren jatorria zein den kontuan izanda (aurre ebaluazio orokorra, ikasturte bukaerako ebaluazioak, proiektu bukaerako ebaluazioa...) hartu beharreko erabakia desberdina izango da. Hasierako ebaluaketarekin ikas komunitatearen behar izan maila ezagutu ahal izango da eta honen arabera proiektuko atalak edo jarduerak moldatzea izango da erabakia. Ikasturte bukaerako ebaluaketek hurrengo ikasturteetan helburuak edo hauek lortzeko bideak aldatzera gaitzakete. Azkenik Proiektuaren bukaerako ebaluazioak izandako lorpenak erakutsiko dizkigu eta oraindik ditugun beharrak edo sortu diren berriak erakutsiko dizkigu. Horrela posible litzateke beste hurrengo bost urteetarako proiektu berri bat egitea .

**HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.**

- Interesatuei jakinarazi: Hartu diren erabakiak interesatuta daudenei jakinarazi beharko zaizkie. Interesatuak, Hezkuntza komunitateko agente guztiak dira. Honetaz aparte garrantzi handia dauka emaitzak hezkuntza departamenduari helaraztea, azken finean bera baita aurrekontuari begira medio ekonomikoak jartzen dituen.

**5.1 Datuak hartzeko taula.**

	2010 <sup>27</sup>	2011 <sup>28</sup>	2012 <sup>29</sup>	2012 <sup>30</sup>
• Euskaraz egiten diren bileren %				
• Euskaraz egiten diren bileren % parte hartzaileen arabera.				
• Hizkuntza normalkuntza batzordeari emaniko ordu kopurua.				
• Euskararen erabilera planetik ikasturteko planean onartutako helburuen kopurua.				
• Ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeari begira egiten diren ekintzen eta kanpainen kopurua.				
• Euskaraz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %				
• Elebidunez argitaratzen diren dokumentuen %				
• Gaztelaniaz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %				
• Euskaraz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.				
• Elebidunez dauden kartelen kopurua eta %.				
• Gaztelaniaz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.				
• Ikastetxeko euskarazko web orrialdeak.				
• Harrera euskaraz egin daitekeenaren kartel kopurua.				
• Euskararen erabilera bultzatzeko jarduera eta ekintzetan zein prestakuntzan parte hartzen duten zenbatekoa eta % estamentuka.				
• Hizkuntza Normalkuntza Batzordean zuzendaritza taldeak sartzten dituen parte hartzaileak.				
• Zuzendaritza taldeak Ugao ikastetxeko erabilera planari egiten dizkion ekarpenen kopurua.				
• Baliabide informatikoen bitartez euskaraz zabaldutako informazioaren kopurua eta %				
• Batzorde pedagogikoak ebaluatutako ekintzen kopurua.				
• Batzorde pedagogikoak ebaluatzea bultzatu duen ekintzen eta proiektuen kopurua.				
• Batzorde pedagogikoak egindako hobekuntza proposamenen kopurua eta onartutakoen %				
• Euskaldunak bateratuta dituzten taldeen kopurua.				
• Euskarari berezko hizkuntza estatusa ematen zaio?				
• Ikasleen guraso euskaldunen %				
• Ikasleen guraso Erdaldunen %				
• Ikasleen guraso biak euskaldunak %				
• Ikasleen guraso bakarra euskalduna %				
• Hezkuntza normalkuntza batzordean parte hartzen dutenen kopurua.				

<sup>27</sup> 2010. urtea jartzen duen honetan 2010-2011 ikasturteko hasiera izango da, irailean.

<sup>28</sup> 2011. urtea jartzen duen honetan 2010-2011 ikasturteko amaieran izango da eta ikasturteko euskararen erabilera bultzatzeko urteko planaren emaitzen datuak hartuko dira kontuan beraz ezingo ditugu datu guztiak kontrastatu.

<sup>29</sup> 2012. urtea jartzen duen honetan 2011-2012 ikasturteko bukaeran izango da ikasturte honetako euskararen erabilera bultzatzeko urteko planaren emaitzen datuak hartuko ditugu kontuan.

<sup>30</sup> 2012. urtea jartzen duen honetan 2012-2013 ikasturteko hasieran egingo den datu bilketa kontutan izango da eta hurrengo plangintzarako ere balioko du.

**HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.**

• IHPn ikasturtean zehar eman diren aldaketak.				
• Ikastetxeko proiektu curricularra berritua al dago?				
• Erabilerari ematen zaion garrantzia ebaluazioa egiterako orduan %				
• Bizkaierazko hiztegia erabiltzen duten ikasmaterialeen kopurua eta %				
• IPCan ikasturtean zehar egin diren aldaketa kopurua.				
• Antolamendu eta Jarduera Araudian txertatu diren erabakien kopurua.				
• AJA euskaraz al dago?				
• Ikasgelan dauden euskarazko materialen %				
• Ikasgelan dauden gaztelaniazko materialen %				
• Euskarazko liburuen kopurua eta %				
• Gaztelaniazko liburuen kopurua eta %				
• Ikasleek eginiko erakusketen kopurua.				
• Ikasleek beste ikasle batzuen aurrean eginiko erakustaldien kopurua.				
• Ikasgelan dugun Euskarazko softwarearen %				
• Zenbat irakaslek ezagutzen dute UEEPa. <sup>31</sup> %				
• Irakasleen artean parte hartzeko prest daudenen kopurua eta %				
• Aurreko ikasturteko ekintzen artean irakasleriaren parte hartze aktiboa izan duten ekintzen kopurua. % auto ebaluazioaren arabera.				
• Ikastetxera heltzen den eskaintzaren kopurua.				
• Eskola 2.0 programak ematen dizkigun baliabideak erabilia eskaintza horren argitaratzearen kopurua.				
• IRALE programan parte hartzen duten irakasleen kopurua.				
• Ikastetxean aurreko ikasturtean eginiko IRALE programako ikastaroak edo mintegiak.				
• Euskararen erabilera indartzeko egiten den formazioen zenbat da Bizkaieraz.				
• Hizkuntzaren erabileran zuzendu beharreko akatsen aipamenean erabilitako baliabideen kopurua (kartelak, ordenagailu lanak, irrati saioak, grabazioak,...)				
• Aurreko ikasturtean metodologiari buruzko hartu diren adostasunen kopurua.				
• Ahozko hizkuntza lantzeko aztertu diren materialen kopurua.				
• Euskal kulturari eta Curriculumaren euskal dimentsioari buruzko formazio saioen kopurua.				
• Euskarazko harremanen %				
• Euskaraz zein gaztelaniaz egiten diren harremanen %				
• Gaztelaniaz egiten diren harremanen %				
• Euskaraz egiten diren bileren kopurua % <sup>32</sup>				
• Mintzagramaren arabera eremu ez formalean gaztelania agertzen den %				
• Bizkaieraz hitz egin dezakeen irakasleriaren %				
• Bizkaieraz zuzen idatzi dezakeen irakasleriaren %				
• HNPrak irakasleriarengandik heldutako ideien kopurua.				
• HNPrak irakasleriarengandik heldutako ideietatik onartutakoen %				

<sup>31</sup> Ugao LHI ikastetxeko euskara erabiltzeko plana. Irakurtzen ari zaren plangintza.

<sup>32</sup> Irakasleen arteko bilerak bakarrik.



**HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET SAKONTZE EGITASMOA.**

• <b>Bildutako auto ebaluazioen kopurua eta %</b>				
• Ikasleek ikasturtean zehar borondatez parte hartzen duten kanpainen kopurua.				
• Kanpainetan borondatez parte hartzen duten ikasle kopurua.				
• Heziketa fisikoan euskal kultura oinarri duten unitate didaktikoen kopurua.				
• Euskal kulturaren oinarritutako tradiziozko jolasei buruzko unitate didaktikoen kopurua.				
• Ikasturtean zehar ikastetxera gonbidatuta etorritako pertsonen kopurua.				
• Euskararen erregistro desberdinen ezagutza lantzeko helburuarekin ingurura egin diren irteerak.				
• Ikasturtean zehar gela barruan eginiko ahozko ekintzen kopurua.				
• Ikasturtean zehar beste gela batzuetan eginiko ekintzen kopurua.				
• Erabilera eskasagatik euskarazko ikasgaia gainditu gabe duten ikasleen kopurua eta %				
• Ikasleak zein irakasleak ez diren hezkuntza komunitateko edo komunitate kanpoko eragileekin batera garatutako ekintzen kopurua.				
• Ikasturtean zehar euskarazko hiztegiarekin ikasitako jolasen kopurua.				
• Behaketaren bitartez ikasitako jolas berrien erabilera ziurtatu eta kuantifikatu.				
• Euskaren erabilera bultzatzeko helburuarekin eginiko irteeren kopurua. <sup>33</sup>				
• Saria lortu duten ikasleen kopurua eta %				
• Borondatez parte hartu ez dutenen kopurua.				
• Begiraleek egindako ekarpenen kopurua.				
• HNBk onartutako ekarpenen kopurua eta %				
• Begiraleak parte hartzen duten formazio saioen kopurua.				
• Begiraleek beraien esku hartzean euskararen erabilera bultzatzeko eginiko ekintzen kopurua.				
• Euskarazko harremanak dituztenen kopurua eta %				
• Gaztelaniazko harremanak dituztenen kopurua eta %				
• Harreman elebidunak dituztenen kopurua eta %				
• Jantokiko ekintza gidatuetan parte hartu dutenen ikasleen kopurua eta %				
• Bizkaierazko hiztegia duten kartelen kopurua.				
• Begiraleen koordinatzaileak parte hartu dituen bileren kopurua eta %				
• Begiraleak parte hartu dituzten kanpainen kopurua eta %				
• Irakasle ez diren langileek egindako ekarpenen kopurua.				
• HNBk onartutako ekarpenen kopurua eta %				
• Formazio ikastaroetan parte hartzen dutenaren kopurua eta %				
• Lehenengo hizkuntz perfila duten langileen kopurua.				
• Bigarren perfila duten langileen kopurua.				
• Perfilik ez duten langileen kopurua.				
• Irakasle ez diren langileen koordinatzaileak parte				

<sup>33</sup> Aurretik ere erabili dugu adierazle hau edo oso antzekoa beraz behin bakarrik neurtu beharko dugu. Baina kontutan izan beharko da bi helbururen lorpenerako izango dugula kontuan.

**HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.**

hartu dituen bileren kopurua eta %				
• Irakasle ez diren langileak parte hartu dituzten kanpainen kopurua eta %				
• D ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %				
• B ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %				
• A ereduan matrikula egiten duten ikasleen kopurua eta %				
• Motibazio saioetara etortzen den familien kopurua eta %				
• Familientzat eginiko motibazio saioen kopurua.				
• Euskararen ikasketan parte hartu nahi duten familien kopurua.				
• Familien artean guraso edo eta aitona-amona euskaldunen kopurua eta %				
• Familien artean guraso edo aitona-amona erdaldunen kopurua eta %				
• Familia eta guraso erdaldunen artetik, zenbatek parte hartu duen euskarazko ikastaroren batean %				
• Ekimenetan parte hartzeko prest dagoen familia partaide kopurua.				
• Euskaldun zaharrak direnen kopurua eta %				
• Ekintza desberdinetan parte hartzen duten familien ordezkarien kopurua.				
• Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu duten famili ordezkarien kopurua.				
• Familiak egindako ekarpenen kopurua.				
• Familiak egindako ekarpenetatik onartutakoak %				
• Familiak ikastetxeko bizian parte hartuz antolatutako ekintzen kopurua.				
• Ikasturtean zehar familien batzordeak eginiko bileren kopurua.				
• Ikasturtean zehar familien batzordeak eta ikastetxearen batzordeak eginiko bileren kopurua.				
• Idatzizko harremanak euskaraz bakarrik eskatu dituzten familien kopurua eta %				
• Euskaraz bakarrik irteten diren idatzien %				
• Ikastetxera euskaraz bakarrik heltzen diren idatzien %				
• Ikastetxera gaztelaniaz bakarrik heltzen diren idatzien %				
• Ikastetxera elebidunez heltzen diren idatzien %				
• Euskaraz hutsez egindako bileren kopurua eta %				
• Gaztelania hutsez egindako bileren kopurua eta %				
• Elebidunez egindako bileren kopurua eta %				

**5.2 Datu kualitatiboak eta ekarpen posibleak biltzeko taula.**

Datu kuantitatiboak datu kualitatiboak hezkuntza komunitateak euskararen erabileraren garapenari buruz, komunitatean bertan dagoen pertzepzioa gehituko diote eta beraz hezkuntza komunitateko agente guztiek hurrengo taula betetzea komeniko litzateke. Horrela datu kuantitatiboak ematen diguten joera hezkuntza komunitatearen pertzepzioarekin bat datorren jakiteko.

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

**EUSKARA PLANAREN EBALUAZIOA EGITEKO BALORAZIO  
KUALITATIBOA.**

**Ikastetxea:**..... **Urtea:**.....

Irakasleriaren balorazioa esparru desberdinei buruz:

1. Ikastetxeko antolakuntza eta eraikuntza curricularraren eremua..
  2. Eskola komunitateko harremanak.
  3. Formazioa.
  4. Ekintzen eraginkortasuna.
- Jarraian idatzitako esparruak, **indar gunetzat** edo **ahuleziatzat** hartzen ditugun adierazi beharko dugu eta jarraian 1etik 4arteko nota jarriko ditugu 1a eta 2a ahulezietan aurkituz eta 3a eta 4a indar guneetan.

1. Ikastetxeko antolakuntza eta eraikuntza curricularraren eremua..

	Ahulezia	Indar gunea	Azalpenen bat eman nahi izan ezker.
Eskolako hizkuntz proiektua.	1 2	3 4	
Ikasle elebidunak lortzea (emaitzak).	1 2	3 4	
Ikasleen taldekapena.	1 2	3 4	
Euskara plana.	1 2	3 4	
Ikastetxeko informeak.	1 2	3 4	

2. Eskola komunitateko harremanak.

	Ahulezia	Indar gunea	Azalpenen bat eman nahi izan ezker.
Familiekiko harremanak.	1 2	3 4	
Ikasleen arteko harremanak.	1 2	3 4	

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.

Euskara ez erabiltzearen aurreko jarrera.	1 2	3 4	
Monitoreen eta eskolaz kanpoko hezitzaileen jarrera.	1 2	3 4	
Eskola komunitateko partaideen arteko koordinazioa.	1 2	3 4	

3. Formazioa.

	Ahulezia	Indar gunea	Azalpenen bat eman nahi izan ezkerro.
Hizkuntza gaurkotzeko dugun formazioa.	1 2	3 4	
Errekurtsoak.	1 2	3 4	

4. Ekintzen eraginkortasuna.

	Ahulezia	Indar gunea	Azalpenen bat eman nahi izan ezkerro.
Ekintzaren izena.	1 2	3 4	
Ekintzaren izena.	1 2	3 4	
Ekintzaren izena.	1 2	3 4	
Ekintzaren izena.	1 2	3 4	
Ekintzaren izena.	1 2	3 4	
Ekintzaren izena.	1 2	3 4	

Hobetzeko proposamenak:

Hasierako diagnostiko kuantitatiboa eta kualitatiboa egin eta gero adierazle bakoitzarekin neurtutako elementuetan hobekuntza bat markatuko dugu. Adibidez euskaraz egiten diren bilerak 14 badira eta horrek bileren %50 adierazten badigu. Plangintzaren bukaeran euskarazko bileren %70 heltzea proposatuko dugu. Horretarako ikasturteko plangintza bakoitzean %10a hobetu beharko da. Baina aspektu hauek hurrengo puntuan jorratuko ditugu.

## 6. URTEKO PLANA EGITEKO PROPOSAMENA.

Urteko plana egiteko Plangintzako elementuak kontutan izango ditugu. Ekintza desberdinak prestatu eta martxan jarri beharko dira. Nork parte hartuko duen, ikasturteko zein momentutan egingo diren, nork bideratuko dituen, nori zuzenduta egongo diren eta zenbateko diru beharra egongo den ikasturteko plan hau aurrera emateko. Horretarako eusko jaurlaritzak eskaera egiteko eredu bat dauka eta bertan aurretik idatzitako galderak erantzuten saiatuko gara.

Beraz, gauza bakarria gelditzen zaigu ikasturteko programazioa egin nahi badugu. Eragin nahi dugun esparruak eta aspektuak kontutan izanda egokiak iruditzen zaizkigun helburuak aukeratu eta helburu hauen lorpenean lagunduko ditugun ekintzak eta ebaluazioa zehaztu.

Hori burutzeko, ikastetxeetan ikasturteko plan orokorra onartzen den momenturako ekintzak aukeratuak egon beharra daukate eta plan orokor horretan txertatu beharko dugu gure euskararen erabilerarako ikasturteko plana.

Ikastetxeko klaustroak lehenengo eta organo gorenak gero onartu beharko du ikasturteko programazio orokorra eta honekin batera euskararen erabilera bultzatzeko ikasturteko plana ere bai.

Ikasturteko plan honek helburuak eta ekintzak zehazteaz aparte oso garrantzitsua izango da ebaluazio propio eta zehatza izatea. Horretarako lehenengo hiru hilabetean egingo den diagnostikoa kontutan izango da eta bertan lortutako datuetan hobekuntzak lortu beharko dira planak eragin duen aspektuetan edo hobeto esanda planak eragitea nahi dugun aspektuetan. Honetarako adierazleak erabiliko ditugu eta ikastetxeak erabakitako hobekuntza tartea lortu den ala ez jakiteko planaren bukaerako ebaluazioan aukeratutako adierazle berberak neurtuko ditugu, ea nahi genuen hobekuntza lortu den ikusteko.

Urte anitzeko plangintzak berak izango du lortu beharreko hobekuntza maila jakin bat eta horren ondorioz ikasturte bakoitzean lortu beharreko hobekuntza ere aurreikusi dezakegu. Honen arabera jakin dezakegu, ea urte anitzeko plangintzan markatutako lorpen maila lortzeko moduan izango garen ala ez. Ez bada espero genuena lortu, hurrengo urteko planean ere helburu horietan eragiteko ekintza berriak planteatu beharko ditugu, hasiera batean hori gure nahia izan ez arren edo urte anitzeko plangintzan genituen lorpen mailari buruzko helburuak jaitsi egin beharko ditugu.

Bi ikasturte barne hartzen dituen plangintzak ez du moldaketa askorik egiteko tartea uzten. Ikasturte batean egiten ez duzuna hurrengo ikasturtean egin beharra daukazu eta ondorioz lortu gabeko helburuak gelditzen badira edo ebaluazio eskas bat daukaten helburuak badaude zailtasun handia izango dugu hurrengo urtean daukagun ekintza kargarekin, oraindik gehiago sartzea. Baina bost urteko plangintza batek eta hurrengoak horrelakoak izango dira, esku hartze mota hau garatzeko aukera gehiago ematen digute.

Ondorioz, aurrekontu txiki bat egin, egingo diren ekintzak sekuentziatu eta ekintza hauen eragina zein izango den baloratu beharko dugu. Horretarako urte anitzeko plangintzatik zenbait adierazle aukeratu beharko ditugu, diagnosiaren momentuan neurtutakoak eta ikasturte bukaeran berriro neurtu ea aurreikusten genuen hobekuntza eman den ala ez jakiteko.

Ikasturte honetarako aukeratuko ditugun esparruak, aspektuak, helburuak eta adierazleak hurrengoak dira:

**HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA, HIZNET  
SAKONTZE EGITASMOA.**

Eremua.	Ikastetxe antolakuntza eta eraikuntza curricularraren eremua.
Esparrua.	Ikastetxearen antolamendua.
Aspektua.	Aspektu orokorrak.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hezkuntza komunitatearen inplikazioa lortzea normalizaziorako bidean.</li> <li>○ Euskararen erabilera areagotzea Hezkuntza komunitatean.</li> <li>○ Paisaia linguistikoa euskaraz dagoela ziurtatu.</li> </ul>
Adierazleak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskaraz egiten diren bileren %</li> <li>● Euskaraz egiten diren bileren % parte hartzaileen arabera.</li> <li>● Hizkuntza normalkuntza batzordeari emaniko ordu kopurua.</li> <li>● Euskararen erabilera planetik ikasturteko planean onartutako helburuen kopurua.</li> <li>● Ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeari begira egiten diren ekintzen eta kanpainen kopurua.</li> <li>● Euskaraz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %</li> <li>● Elebidunez argitaratzen diren dokumentuen %</li> <li>● Gaztelaniaz bakarrik argitaratzen diren dokumentuen %</li> <li>● Euskaraz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.</li> <li>● Elebidunez dauden kartelen kopurua eta %.</li> <li>● Gaztelaniaz bakarrik dauden kartelen kopurua eta %.</li> <li>● Ikastetxeko euskarazko web orrialdeak.</li> <li>● Harrera euskaraz egin daitekeenaren kartel kopurua.</li> </ul>

Eremua.	Ikastetxe antolakuntza eta eraikuntza curricularraren eremua.
Esparrua.	Ikastetxearen antolamendua.
Aspektua.	Organo kolegiatuak.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ OOG<sup>34</sup>ak eta Klaustroak UEEPa bere egitea.</li> <li>○ Batzorde pedagogikoan euskararen erabilera plangintzari buruz gogoeta egitea, koordinatzea eta ekintzen ebaluazioa bultzatzea etengabeko hobetzea bermatzeko.</li> </ul>
Adierazleak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskararen erabilera bultzatzeko jarduera eta ekintzetan zein prestakuntzan parte hartzen duten zenbatekoa eta % estamentuka.</li> <li>● Baliabide informatikoen bitartez euskaraz zabalduko informazioaren kopurua eta %</li> <li>● Batzorde pedagogikoak ebaluatutako ekintzen kopurua.</li> <li>● Batzorde pedagogikoak ebaluatzea bultzatu duen ekintzen eta proiektuen kopurua.</li> <li>● Batzorde pedagogikoak egindako hobekuntza proposamenen kopurua eta onartutakoen %</li> </ul>

Eremua.	Ikastetxe antolakuntza eta eraikuntza curricularraren eremua.
Esparrua.	Eraikuntza curricularraren esparrua.
Aspektua.	Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ IHPan beharrezko aldaketak bultzatzea eta UEEPa bertan txertatzea. Hau lortzeko beharrezko diren pauso guztiak ematea. Eta Hezkuntza komunitateko eguneroko bizitzan aldaketa hauek nabaritzeko beharrezko pausoak ematea.</li> </ul>
